

#17 / 2021 MAIATZA

artelka

GEDAR

***Langileen Nazioarteko Erakundearen
(LNE) hitzetan, Komuna «bere baitan
lanaren emantzipazio ekonomikoa
gauzatzeko forma politikoa da, azkenik
aurkitzen dena», hau da, komunismoan
klase sozialen abolizioak hartu behar
duen forma. Baina forma hori ez da
horrelakoa langileek garatzen dutelako,
baizik eta langileek garatzen dute haien
emantzipazioa gauzatzeko forma bakarra
delako. Ezberdintasuna funtsezkoa da:
langileriak egiten duen guztiak ez du
bere emantzipaziora eramaten, eta bere
borroka epiko guztien bitartekoa ez da
kontzientzia iraultzailea***

06

EDITORIALA

Arteka

Komuna, historia bizia

EDUKIA

10



ERREPORTAJEA

Arteka

Paris: gizarte burgesaren
sehaska eta hilobi

22



IKUSPUNTUA

Carmen Parejo

Parisko Komuna
eta marxismoa

32



ERREPORTAJEA

EKIDA kultur ekimen sozialista

Artearen eta kulturaren
lekua Parisko Komunari

46



KOLABORAZIOA

Markel Samaniego

Forma politikoa eta botere
soziala: Komunaren momentu
politiko eratzaileetara
sarrera orokorra

56



KOLABORAZIOA

Eneko Carrión

Krisia, 'Brexit'-a eta
funts europarrak

Komuna, historia bizia

EDITORIALA

150 urte bete dira Parisko Komunaren gertaeretatik. Ohikoa den bezala, efemerideak mota askotako ospakizunetan eta aldarrikapenetan egikaritzen dira, baina oso gutxitan eramaten dute gertakari horien azterketara eta azalekoa ez den birjabetzera; hau da, estetika bat aldarrikatzea helburu ez duen birjabetzea, edo orokortze hutsagatik aukera bat deuseztatzea –iraultza sozialistaren gaurkotasuna ukatzen dutenek ere Komuna aldarrikatzen badute, ez ote da izango garrantzirik ez duelako?–, baizik eta indarrean dagoenarekiko posizio erreala hartzea.

Komunistontzat, Parisko Komuna ez da ospatu beharreko gertakari bat, gure pentsamenduaren ezkutuko leku batean aurkitzen den jazoera historiko bat, egoera iragankorrek hala eskatzen duenean, eta soilik eskatzen badu, eskura duguna. Komuna proletalgoaren esperientzia bizi bat da komunistontzat, jatorri eta helburu zituen prozesu historikoa gauzatzearen zentzuan aldarrikatu behar dena, eta ez eskuragarri ez ditugun iragandako garaien oroitzapen soil gisa.

Askotan, jazoera historiko baten oroitzapena haren gaurkotasuna deuseztatzean datza, hain zuzen ere. Horretarako, nahikoa da historikoki determinatuta dagoen bere beharrezkotasun objektibotik deskonektatzea, eta ausardiaren adibide gisa aurkeztea, baita borondate- eta konpromiso-dosi handien, guztiak ere balio ahistorikoak, adibide gisa ere, betiere kasualitatezko baldintza-multzo batetik eratorritako kasualitatearekin lotuta. Azken finean, beharrezkotasuna kasualitate bihurtzean datza gertakaria, eta hori langile klasearen emantzipaziorako antolakuntza alferrikako edo erlatibo bilakatzea da. Horrela sortzen da epika, gertakari historikoak aza-

Komunistontzat, Parisko Komuna ez da ospatu beharreko gertakari bat, gure pentsamenduaren ezkutuko leku batean aurkitzen den jazoera historiko bat, egoera iragankorrek hala eskatzen duenean, eta soilik eskatzen badu, eskura duguna. Komuna proletalgoaren esperientzia bizi bat da komunistontzat, jatorri eta helburu zituen prozesu historikoa gauzatzearen zentzuan aldarrikatu behar dena, eta ez eskuragarri ez ditugun iragandako garaien oroitzapen soil gisa

letik aldarrikatzen dituen erreakzionario handi hori, eta, horrekin batera, horien beharra ukatzen duena, historikoki determinatutako jazoerak diren aldetik, ez baitira sortzen parte hartzaileen balio abstraktuetatik, baizik eta lehertu egiten baitira sistema kapitalistaren barne-kontraesan inmanente gisa.

Horregatik, ez da harritzekoa sozialdemokrazia Parisko Komuna aldarrikatzen ikustea, iragana-rekiko adeitasunez, eta gertatutakoa ezin delako ezabatu, baina, agian, bai ezkutatu, eta horretarako beharrezkoa da aldarrikatzea. Era berean, ez da harritzekoa sozialdemokraziak sindikatuaren atzean ezkutatuta aldarrikatzea Komuna, nahiz eta Komunaren ikaspenen kalterako izan. Erreformismo obreristaren froga ukaezina da langile klasearen emantzipazio prozesu politiko bat aldarrikatzen duena sindikatua izatea. Erreformismo horrek partzialki baino ez du klasea ulertzen, eta erabat mutilatuta dago lanpostuan; horrela, gizarte-bizitzaren ekoizpen-subjektu ez izatera kondenatzen du, hau da, subjektu iraultzaile ez izatera, baizik eta besteren botere bitartekaritzaren objektu, esplotatutako subjektu.

Azaleko ikuskera horretatik ihes egiten saiatuko gara; izan ere, langile klasearekin identifikatzen du Komuna, antolatu zutenak langileak zirelako. Are, Komunan parte hartu zutenak ez ziren langileak soilik izan, eta, beraz, identifikazio hori gertatzen da egitateek haien irakurleei ezartzen dieten beharretik, posizioa hartzeko eta, errealitatea desitxuratzuz, euren burua definitzeko. Era berean, langile klasearen idealizazio oro saihestu behar dugu. Estrategia bat «*langilea*» da, eta langile klaseari berezkoa, baldin eta ekoizpen sozialaren prozesu orokorrean duen egoera objektibotik abiatzen bada, eta baldintza hori bere egiten badu. Baina, aldi berean, iraultza sozialista ahalbidetzen duen baldintza objektibo hori ez da berez positiboa, ezta hitzaren zentzu komunean ere. Langile klasea, bere egoera objektiboa dela eta, ekoizpen sozialaren baldintza guztiak birjabetu eta kontzienteki antola ditzakeena, subjektu gisa sozialki mutilatuta dagoen izaki bat da egun, baina, aldiz, kontzientea eta ekoizpenaren antolatzailea da Kapitalaren ekoizpen-unitate bakoitzean, baita kapitalisten kontu komunaren administratzaile ere estatuan. Hau da, gizarte-prozesu kapitalistaren berehalako zuzendaritza-funtzioak langile klase osoari dagozkio, langileria hori behartuta baitago administratzera besteren boterea edo kapitalaren ekoizpena ahalbidetzeko. Ezin gara baldintza horren idealizazioan erori, hain zuzen, bere ukazioa gauzatzeko baldintza baita, hau da, hura gainditu behar duen iraultza sozialista. Bes-

***Erreformismo obreristaren
froga ukaezina da langile
klasearen emantzipazio
prozesu politiko bat
aldarrikatzen duena
sindikatua izatea.*** “
***Erreformismo horrek
partzialki baino ez du
klasea ulertzen, eta erabat
mutilatuta dago lanpostuan;
horrela, gizarte-bizitzaren
ekoizpen-subjektu ez izatera
kondenatzen du, hau da,
subjektu iraultzaile ez izatera,
baizik eta besteren botere
bitartekaritzaren objektu,
esplotatutako subjektu***



*Komunaren beharra ekoizpen harreman kapitalistak
gainditzeko beharrarekin bat dator. Hau da,
Komuna, eskala desberdinetan artikulatutako
antolaketa sozial kontzientea, Kapitalaren potentzia
sozialen abolizioa da, merkataritza-ekoizpenaren
edo ekoizpen pribatuaren abolizioa, eta ekoizpenaren
berehalako egikaritze soziala. Horrenbestez,
Kapitalaren pertsonifikazioa gorpuzten duten figura
sozial eta politikoak ezeztatu behar ditu, alferreko eta
anakroniko bihurtzeagatik: burokrazia, polizia eta
armada iraunkorra, ahalmen sozialak merkantzian
besterenduz sortzen diren hiru instantzia*

tela, indarrean dagoena iraunarazten duen erreformismoan erortzen da, langileria idealizatzen duena existitzen den guztiaren ekoizle bezala, Kapitalak langileria eraiki duen gisara.

Parisko Komuna garrantzitsua da, batez ere, langileria bera zalantzan jartzen duelako. Langileen Nazioarteko Erakundearen (LNE) hitzetan, Komuna «*bere baitan lanaren emantzipazio ekonomikoa gauzatzeko forma politikoa da, azkenik aurkitzen dena*», hau da, komunismoan klase sozialen abolizioak hartu behar duen forma. Baina forma hori ez da horrelakoa langileek garatzen dutelako, baizik eta langileek garatzen dute haien emantzipazioa gauzatzeko forma bakarra delako. Ezberdintasuna funtsezkoa da: langileriak egiten duen guztiak ez du bere emantzipaziora eramaten, eta bere borroka epiko guztien bitartekoa ez da kontzientzia iraultzailea. Era berean, Komuna emantzipazioak hartu behar duen forma da, baina baliteke bere ahalmen guztiak beharrezkotasunez ez hedatzea eta porrot egitea, bere edukia, hau da, hartutako neurri politikoak, bere zeregin historikoarekin bat ez etortzeagatik. Beraz, Komuna ez da ideal bat ere, lanaren emantzipazioak hartu behar duen forma da, eta, beraz, hari dagozkion potentzia politikoak neurri horretan hedatu behar ditu. LNEk egindako irakurketan jasotzen da hori, non Komunaren zuzendaritza politikoaren gabeziak aipatzen diren, nagusiki, burges txikiek, proudhonistek eta blankistek osatua, baina Komuna bera kapitalismoa gainditzeko gizarte-antolaketa forma beharrezko modura defendatzen den.

Komunaren beharra ekoizpen harreman kapitalistak gainditzeko beharrarekin bat dator. Hau da,

Komuna, eskala desberdinetan artikulatutako antolaketa sozial kontzientea, Kapitalaren potentzia sozialen abolizioa da, merkataritza-ekoizpenaren edo ekoizpen pribatuaren abolizioa, eta ekoizpenaren berehalako egikaritze soziala. Horrenbestez, Kapitalaren pertsonifikazioa gorpuzten duten figura sozial eta politikoak ezeztatu behar ditu, alferreko eta anakroniko bihurtzeagatik: burokrazia, polizia eta armada iraunkorra, ahalmen sozialak merkantzia besterenduz sortzen diren hiru instantzia. Horiek betikotzea da harreman sozial kapitalisten betikotzearen eta Komunaren, hau da, gure potentzia sozial emantzipatzailearen porrotaren ageriko frog.

Beraz, Komunaren aldarrikapena atzeranzko museo-begiradatik harago doa, iraultza sozialistaren aldarrikapen bihurtzeko. Komuna ez zen zehazki Parisen kokatutako borroka bat izan, guda franko-prusiarra bezalako egoera historiko berezi eta errepikaezin batek eragindako eztanda gisa sortu zena. Sobietar Iraultza ere ezin da azaldu I. Mundu Gerraren emaitza modura. Horrek agian lagundu dezake proletalgoaren potentzia sozialak hedatzeko egoera politiko mesedegarri bat sortzen. Baina potentziak hor daude, Kapitalean objektiboki determinatuta, eta Komunaren esperientzia beharrezko egiten jarraitzen dute, baita Munduko Iraultza Sozialista ere, ez esperientzia partikular gisa, langile klasea eta horrekin batera gizateria osoa emantzipatzeko unibertsaltasun beharrezko gisa baizik. Garaiak beste batzuk izango dira, agian, baina horrek estrategia iraultzailea posible egingo duen taktika berritza baina ez dakar, hau da, langile klasea bere emantzipazioaren aldeko kontzientziarekin batera-tuko duten bitartekotza-uneak berritzea. /

ERREPORTAJEA

Paris: gizarte burgesaren sehaska eta hilobi

Testua
Arteka





1871ko martxoaren 26an Frantziako burgesiaren buru gainean zintzilik zegoen Damoklesen ezpata. Erorialdi poetiko horren zoriari hari gorri mehar batek baino ez zion eusten, zeinak amorruez eman zuen amore 1848tik saihestezina zirudien patuaren aurrean. Ezpataren ahoak arrakala ireki zuen hitz emandako askatasuna betetzeko gai ez zen sistema berriaren erreprodukzio-logikaren ibileran, eta munduko leku guztietan jarri zituen dardarka burgesiaren zimenduak: historia egin zen. Ezpataren zorrotza Hôtel de Ville-n iltzatuta geratu eta Frantziar klase jabedunen boterea kikildu bazuen ere, mundu kosifikatu osoaren harremanak ez ziren salbuetsita egon. Estatua, Eliza eta jabetza pribatua bezalako instituzioek ebaki historikoa jasan zuten, proletalgo paristarrek bere bizitzaren agintea heroikoki hartzearekin batera. Karl Marxen arabera, garrantzia unibertsaleko unea eman zion Parisko Komunak historiari, ez gizartearen baitan zegoen lege bat mundura iritsi balitz bezala, zikloitsu bateko haustura gisa baizik. Estreinako aldiz, kapitalismoari berezkoak zaizkion legeak hautsi ziren, lanaren eta Kapitalaren arteko kontraesana azken muturreraino eramanez. 1848an proletalgoa klase gisa nolabaiteko independentzia politikoz baina programa iraultzaile bereizirik gabe aritu bazen, 1871n langileriaren eta gizarte kapitalistaren ukazioa adierazten zuen oihu bilakatu zen Komuna. Justizia eta askatasun grinak bultzatuta, erlojuei tiro egin zieten sinbolikoki, proletalgoaren gobernuarekin Kapitalaren substantzia ezeztatuta geratu zela irudikatzen.

Horregatik, proletalgoaren gidaritza zapeko lehen esperientzia iraultzaile autokontzienteen artean kokatu izan da Komuna, formazio sozial modernoko menperatuen historian mugarri bat ezarri zuena. Frantziako botere burgesaren pitzaduren eta grina emantzipatzailearen ondorioz, antolakuntza independentean eskarmentu handirik gabeko proletalgoa egun batetik bestera klase boterea egikaritzera era-

Une historikoari berezkoak zitzaizkion baldintzapenen identifikazio kritikoak XX. mendeko mugimendu iraultzailearen forma determinatuko zuen, boterearen eta Estatuaren teoria sozialista gorpuztuz



man zuen koiuntura historikoak, paradigmaren mugekin eta klase-etsaiaren kanoiekin topo eginez. Une historikoari berezkoak zitzaizkion baldintzapenen identifikazio kritikoak XX. mendeko mugimendu iraultzailearen forma determinatuko zuen, boterearen eta Estatuaren teoria sozialista gorpuztuz. Haurtzaro ekonomikotik eta fase enbrionario politikotik igarotzen ari zen subjektu historikoak esperientzia mingotsak bizi eta handik ikaspenak atera beharko zituen boterera heltzeko estrategia iraultzaile aproposaren zehaztapenera jo aurretik. 1871koa izango zen bidaia luze horren lehen geltokia.

GARAIAREN ALABA

Parisko Komuna eta horren aurreko urteak klase borrokaren intentsitate biziko uneak izan ziren, nazioartean, Frantzia zein gobernuan zegoen Napoleon III.aren exekutiboaren barruan. Nazioarteko mailari dagokionez, bi potentzia inperial zeuden aurrez aurre: Frantziako II. Inperioa eta Prusia. Bi-biak ari ziren Europa mailako hegemonia kontinental lortzeko borrokan, eta une jakin batean, plaka tektoniko geopolitikoak higatzen hasi zirenean, euren arteko botere-orekak pitzadura jasan zuen, lurrikara eraginez. Hala, gerra franko-prusiarrak eztanda egin zuen 1870ean, Alemaniak Prusiaren gidaritzapean bere erreinuak batu eta

nazio-estatu moderno bilakatzeko apustua egin bezain pronto. Maniobra horrek Frantziaren nagusitasuna zuzean mehatxatzen zuenez, potentziek frontera eraman zituzten euren antagonismoak. Gudak urtebete baino ez zuen iraun, eta Prusiarena izan zen garaipen bizkorra. Sedango batailak behin betiko ebatzi zuen inperioaren zori belikoa, eta horrekin batera, Napoleon dinastiaren amaiera. Horren berehalako emaitza Prusiak Frantzia militarki okupatzea izan zen, Parisko Komunaren garra pizteko txingarrak utziz.

Garaiko antagonismoei gertuagotik erreparatuz gero, ikus daitezke Frantzian 1789tik aurrera zabaldu zen matxidana-paradigmaren ondorioak, eferbeszentzia iraultzaile bizian. Sozialistak, anarkistak eta errepublikazale erradikalak barne-arrisku zuzena ziren Napoleon III.aren atzean gordeta zegoen ordena burges berri ezegonkorrentzat. Hiriburuko politika erradikalek baldintzatzen zuten, gerra zibila pizteko mehatxu etengabearekin. Izatez, urte batzuk lehenago, 1848an, proletargoak eta burgesia txiki erradikalizatuak II. Errepublikari oin eman go zion altxamendua bultzatu zuten. «Uholdeak iraultzak bezalakoak dira, bata zein bestea bere norabidera eraman behar dira, handik gehiago irten ez daitezen», ohartarazi zuen enperadoreak 1856an, Rodano ibaiaren



uholdeetan izan ziren kalteen hari-
ra ⁽¹⁾. Zentzu horretan, argia zen klase
agintariaren jarrera iraultzari zegokio-
nez: erregimen zaharra eta ekoizpen
harreman feudalak desegiteko balio
izan zuen, burgesia boterera eramate-
ko, funtsean. Harago zihoan saiakera
emantzipatzaile oro bortizki zapaldua
izango zen. Propagandarako, inprima-
tzeko nahiz elkartzeko proletalgoaren
askatasunak, adibidez, etengabe eraso-
tuak ziren II. Inperioaren ilunabarrean.
Hala ere, errepresioak ez zuen ekidin
klase zapaldu berriaren kontzientzia
propioak antolakuntzaren esparruan
lehen fruituak ematea. 1864ko irailaren
28an Lehen Internazionala osatu zen,
eta desjabetuen nazioarteko aliantzak
ondoko aldarrikapena zabaldu zuen lau
haizetara: «Langileen emantzipazioak
langileen afera behar du izan» ⁽²⁾. Erro-
ko eraldaketak aldarrikatzen zituzte-
nak oraindik zirkulu minoritarioetan
tolestuta zeuden arren, apurka-apurka
langile mugimenduan sustraiak bo-
tatzen hasiko ziren. 1866an Genevan

Zentzu horretan, argia zen klase agintariaren jarrera iraultzari zegokionez: erregimen zaharra eta ekoizpen harreman feudalak desegiteko balio izan zuen, burgesia boterera eramateko, funtsean. Harago zihoan saiakera emantzipatzaile oro bortizki zapaldua izango zen

(Suitza) egin zuten lehen Kongresu
Orokorra, hainbat herrialdeetako sindi-
katuen zein langile antolakundeen ba-
besarekin, horien artean, Frantziakoak.

Lehen Internazionalaren atal paris-
tarraz gain, burgesiarekiko indepen-
denteak ziren beste hainbat instituzio
proletario ere loratu ziren argien hi-
rian, hala nola, sindikatuak, kooperati-
bak eta langileen klubak. Suzko armak,
gainera, behe-klaseen eskuetan ere ba-

zeuden, Guardia Nazionaleko milizia
herrikoietan sartuta. Laugarren Esta-
tua, beraz, indar determinante bilakatu
zen 1871ko Frantzian. Gauzak horrela,
zentzu osoa bilatuko diegu aurrerago
Friedrich Engelsen hitzoi: «Thiers, go-
bernuburu berria, armak Parisko lan-
gileen eskuetan zeuden bitartean, kla-
se jabetuen dominazioa etengabeko
arriskuan zegoela konturatu zen. Haiek
armagabetzea izan zen egin zuen lehen
gauza» ⁽³⁾.

Frantziako II. Inperioaren Estatu
Nagusia ere barrutik irakiten zegoen
presio-eltze bat zen, abenturazetasun
inperialistak porrot militarrek ekarri
baitzituen, bata bestearen atzetik. Je-
neral nazionalisten gerrazalekeriak eta
kosta ahala kosta lurraldeak konkista-
tzeko beharrak indarren kalkulu dese-
gokia egitera eta kanpaina antzuetan
murgiltzera eraman zituen maiz, de-
kadentzia fasean dauden inperioetan
ohikoa den bezala. 1861etik 1867raino
luzatu zen Mexikoko bigarren espedi-
zioan, adibidez, AEBen eragina ertame-
rikara zabaldu zedin ekiditea eta Fran-
tziaren gailentasuna sendotzea izan
zuten helburu. Emaitza kontrakoa izan
zen, ordea, errepublikazale mexikarrek
gerrilla taktiken bidez gogor aurre egin
baitzioten inbasioari. Kanpaina luzatu
ahala, Mexikoren gaineko kontrolak
interesa galdu zuen Napoleon III.aren-
tzat, eta lortu zuten bakarra Prusiaren
aurkako gudura ahulduta heltzea izan
zen.



OHOREA ETA AGONIA

Gerrako porrotak botere hutsunea eragin zuen burgesia nazionalaren konfigurazioan. 1870eko irailaren lehen egunetan inperioa jausi eta Adolphe Thiersen gidaritzapeko Errepublikak aldarrikatu zen. Bien bitartean, Otto Von Bismarcken gudaroste prusiarrak hiriburua setiatzen zuen aldirietatik. Salbuespeneko egoera horren erdian, aparatu legegile zaharrak Defentsa Nazionalerako behin-behineko gobernua osatzea onartu zuten paristarrek, Versallesen gotortuko zena. Hori bai, prusiarren sarrera kosta ahala kosta saihestu nahi zuten masek Guardia Nazionalen izena eman eta armak hartu zituzten, zer gerta ere. Ondorioz, uniforme jantzitako milaka langile bihurtu ziren Parisko indar armatu eraginkor bakarra. Burgesiak ez zuen atsegin indarraren monopolioa bere klase etsaia- ren ardurapean egotea. Gainera, Defentsa Nazionalerako Gobernua ez zen inbasioari aurre egiteko gai, indar okupatzaileek gero eta gehiago estutzen baitzituzten defentsak, klase baxuenak kaltetuz. Errealitateak gezurtatu egiten zuen Thiers eta enparauek euren gazteluetatik promestutako babesa, Defentsa Nazionalerako Gobernuari izena eta zilegitasuna ematen zizkion arrazoi bakarra, alegia. Egoera hauskor horrek ez zuen gehiegi iraun, eta exekutibo iruzurtiaren gaitasun ezak proletalgo armatua lema hartzera bultzatu zuen. 1870eko urriaren 31n langilez osatutako batailoiek Hôtel de Ville hartu eta gobernuko hainbat kide atxilotu zituzten. Gerra zibila ekiditea izan zen horiek ez zigortzeko arrazoi bakarra.

1871ko urtarrilaren 28an eraitsi zituzten prusiarrek Parisko azken defentsak. Guardia Nazionalak su-etena sinatu zuen okupatzaileekin, Alsazia eta Lorenako lurraldeak galtzea eta kalte-ordainak ematea onartuz. Dena den, tropak ez ziren hiriburuaren bihotzeraino sartu, badaezpada ere. Alemaniarrek iparraldeko zein ekialdeko fortifikazioak baino ez zituzten hartu, eta zelatan zegoen indar armatua proletalgo paristarra zen. Atzerago

esan bezala, Frantziako gobernu burges oilobustiak ez zuen begi onez ikusten hiriburuaren gaineko kontrola galtzea, eta bere izaerari ohore eginez, 1871ko martxoaren 18ko ordu txikietan proletalgo paristarrak bere izerdi-odolez ordaindutako kanoi publikoak lapurtzeko agindua igorri zen Versallestik; Guardia Nazionaleko milizianoek prusiarren 131 eguneko erasoaldiari heroi-koki eusteko izan zuten berme bakarra ezgaien atzaparretan jausi zedin. Orduan bai, proletalgoari ez zion dardara egin pultsuak: goizerako, indar armatu erreakzionarioen azpijokoa deuseztatu eta gerra deklaratu zion Frantziako Gobernuari. Ondorioz, soilik bere burua defendatzeko gai zen Defentsa Nazionalerako Gobernu hark Parisen geratzen zitzaion ospe apurra xahutu, eta berehala ezarri zen Komuna, proletalgoaren diktadura.

Martxoaren 28an aldarrikatu zuten, prozesu eratzailea gauzatu eta bi egunera. Boterea eskuratu, arduradunak izendatu eta lege iraultzailea dekretuz dekretu osatzeari ekin zioten beharginek. Komunaren gobernantzarako organo zentral gisa, 92 kidez osatutako Kontseilu Komunala eratu zen, hainbat sektoretako eskulangileen, ogibide liberaldunen, burges txikien eta politikari iraultzaileen parte-hartzearekin. Horiek guztiek, gainera, korronte anitzetako kideak biltzen zituzten. Baziren errepublikazale erradikalak, sozialista proudhonizaleak, komunistak, anarkistak, blankistak... Nahaspila ideologikoak ekintza batasuna zailtzen zuen maiz, eta estrategiaren zehaztapenerako eztabaidek luze jo zezaketen egoera korapilatsuenen erdian. Dena den, oinarritzko zerbitzu publikoei eusteko antolakuntza eraginkorra bultzatzen ⁽⁴⁾, minimoen programa bat zehazten eta horretarako beharrezkoa zen lanaren banaketa sistematizatzen ⁽⁵⁾ asmatu zuten nolabait.

Ezer baino lehen, ordura arte botere erreala egikaritu zuen Guardia Nazionaleko Batzorde Zentrala Komuna besarkatuz desegin zen. Aldi berean, komuneroek derrigorrezko zerbitzu

**Boterea eskuratu,
arduradunak
izendatu eta
lege iraultzailea
dekretuz dekretu
osatzeari ekin
zioten beharginek**





**Setiatuta eta apirilaren 2tik Frantziako
gobernuaren bonbardaketen eraginpean
zeudenez, fronteko egoerak zuzenean
baldintzatu zuen dekretuen garapena
eta erabaki politikoen norabidea**

militarra eta armada iraunkorra abolitu zituzten martxoaren 30ean, eta horren ordez, milizianoen Guardia Nazionalea eratu zen. Egun berean premiazko neurri ekonomikoak hartzea ere ebatzi zuten, hala nola, etxebizitzaren alokairuaren kostuak barkatzea edota langileei bahitutako objektuen salmenta etetea. Hurrengo egunean, berriz, funtzionarioen gehieneko soldata finkatu zuten. Apirilaren 2an Eliza eta Estatuaren arteko banaketa gauzatu zuten, erakunde erlijiosoari diru-laguntza guztiak kenduta, hezkuntza esparruan zuen eragina erauzita eta jabetzan zituen ondasun guztiak nazionalizatuta. Hilaren 6an herriaren aurrean erre zuten gillotina, izu burgesaren gainbehera irudikatu asmoz. Aurrerago, apirilaren 16an, burgesiaren abandonatutako lantegi guztien errolda egin zuten, ekoizpen-jarduera langileen agindupean berrezartzeko. Administrazio proletarioko kooperatiba horien arteko batasuna antolatze-ko asmoa ere azaldu zuten, ondoren gauzatzeke geratuko zen arren. Oki-

nen gaueko lana eta enplegu-bulegoen abolizioa xedatu zuten apirilaren 20an, enpleguaren afera Komunaren barrutietako udal gobernuari esleitu. Hilaren amaieran bahitura-etxeen itxiera agindu zuten, «langileen esplotazio pribatua sustatu eta horiek kreditu zein lan-tresnen jabe izateko duten eskubidearekin lehian daudela»⁽⁶⁾ argudiatuta. Institutuzio, harreman sozial zein forma juridiko atzerakoiak ez ezik, burgesiaren eta aristokraziaren aginduz eraikiak izan ziren hainbat monumentu fisikoki ere suntsitu zituzten komuneroek, Vendôme plazako Garaipenaren Zutabe napoleonikoa, Luis XVI.aren kapera edota Thiersen etxea kasu.

Setiatuta eta apirilaren 2tik Frantziako gobernuaren bonbardaketen eraginpean zeudenez, fronteko egoerak zuzenean baldintzatu zuen dekretuen garapena eta erabaki politikoen norabidea. Zentzu horretan, Komunak Versallesko gobernuak berrindartutako gudarosteari aurre egitera bideratu behar izan zituen indar gehienak maiatzetik

aurrera. Apirilean versallistarren hainbat ofentsiba uxatzea lortu zuten arren, Prusiak Sedan eta Metzko guduetan atzemandako gerrako presoak itzuli zizkion Thiersi, hark Komuna zapaltzera bidal zitzen. Ustezko arerioaren konplizitatearekin, indar errepublikarrek gailentasun militar nabarmena irabazi zuten. Ordutik, fronteko indar-korrelazio militarra bere alde jarri zela ikusita, Thiersek uko egin zien negoziazioei. Saiakera ezagunena komuneroek preso zituzten hainbat elizgizon Auguste Blanqui buruzagi iraultzailearengatik trukatzearena izan zen, baina Versallessen uko egin zion eskaintzari⁽⁷⁾. Erabateko garaipenaren bila bidaliko zituzten erreakzioaren indarrak.

Thiersek gidatutako gizonak hegoaldeko frontetik hasi ziren aurrera egiten maiatzeko lehen egunetan, gotorleku estrategikoak neutralizatuz. Mendebaldetik, berriz, eraikinak eta herrixkak konkistatu zituzten apurka-apurka, harrerien parera iritsi ziren arte. Maiatzaren 21ean lortu zuten atea haustea eta







Erantzun militarra erabat kaotikoa eta inprobisatua izan zen, ez baitzion plan estrategiko bati erantzuten, ez eta diziiplina jakin bati

Herriaren armamentu orokorra eta sufragio unibertsal bidez hautaturiko ordezkarien lanaren korporazioa ezarri ziren. Arduradunek haien betebeharrei erantzuten ez bazieten, uneoro ezeztatu zitezkeen euren karguak

hirigunera sartzea. Mendebaldeko auzo aberatsetako bizilagunek besoak zabalik jaso zituzten soldadu errepublikarrak. Aurrera egin ahala, erresistentzia gogorarekin egin zuten topo auzo proletarioetan. Hori bai, erantzun militarra erabat kaotikoa eta inprobisatua izan zen, ez baitzion plan estrategiko bati erantzuten, ez eta diziplina jakin bati. Olivier Lissagarayren arabera, «lurrunak ehun zulotik ihes egiten duen makina baten galdara bezalakoa» izan zen defentsa ⁽⁸⁾. Bien bitartean, komunikazio, antolakuntza zein hornidura egoiak zituen gudaroste iraunkorra hegaltzietatik ari zen irabazten. Ipar zein ekialdeko gotorlekuak okupatzen zituzten prusiarrek iparraldetik sartzen utzi zieten Versaillesko tropei, Guardia Nazionalarekin su-etenean sinatutakoa hautsita. Etsaiaren maniobra horrek ustekabearen harrapatu zuen Komuna, Prusiaren hitzaz fidatuta, eta defentsak prestatu gabe zituela. Behin proletarioaren azken lubakiak eraitsita, izu burgesa egin zen Parisen jabe. Errepre-

sioak milaka hildako utzi zituen; emakume, gizon zein haur armagabetuen aurkako sarraski itzela egin zuen armada errepublikarrak. Heriotzetik ihes egitea lortu zutenek erbesteratu jo behar izan zuten. Balen azpian erori ez ziren beste asko, aldiz, etsaiak atzeman eta giltzapetu zituen.

FORMA POLITIKOA, HELBURUAK

Porrotak porrot, esperientzia horrek eduki praktikoz bete zuen 1848an aldarrikatutako proletarioaren diktaduraren ideia iraultzaile zaharra. Subjektu historiko proletarioak bere emantzipazioa burgesiaren aurkako diktaduran oinarritu behar zuela lehendik baldin bazekien, 1871n zehaztu egin zen, hein handi batean, bere izaera abstraktua galduta.

Izan ere, Komunaren eraketak proletarioaren emantzipazio-formari erantzun zion. Lehenik eta behin, proletarioak jada ez baitzuen Estatuaren makineria zaharra besterik gabe hartu behar, berau suntsitu baizik, behin

betiko armadarekin, poliziarekin zein burokraziarekin batera. Horren ordeztu, herriaren armamentu orokorra eta sufragio unibertsal bidez hautaturiko ordezkarien lanaren korporazioa ezarri ziren. Arduradunek haien betebeharrei erantzuten ez bazieten, uneoro ezeztatu zitezkeen euren karguak. Karl Marxen arabera, Komunak ez zuen zerikusirik parlamentu-organismoarekin, izaera exekutibo nahiz legegilea zuen lanaren korporazioa baitzen. *Politika*, gizarte burgesaren ulermen-markoan esfera autonomoa dena, desegin egin zen. Horren ordeztu, Komunaren funtzioak ekoizpenaren administrazio zein banaketa arruntera mugatu ziren; proletarioarentzat benetan *politika* den horretara, alegia. Horregatik, balioaren legea zokoratzeko eta erabilera balioaren kudeaketa indartzeko borondatea azaldu zen, behar sozialen arabera egokitutako ekoizpenaren planifikazioa eraikitzeko alternatiba.

Pentsalari iraultzaile askok us-te izan dutenaren kontra, Komuna ez zen nolanahiko Estatu, lekuko organoak aparatu zentral burokratiko baten appendize hutsak bailiran. 1871ko Frantzia iraultzailean, helburua erregimen komunala lurralde osora zabaltzea eta ekoizleen autoantolakuntza baimentzea zen ⁽⁹⁾, muga objektiboekin zein aihulgune estrategikoekin. Hori bai, hori ez zuten erabateko federazio edo deszentralizazio anarkiko modura ulertzen. Komuna bakoitzaren autonomia erlatiboa errespetatuta, neurri handiagotan ala txikiagoan, guztien elkarketa bermatzea eta ekoizpena planifikazio adostuaren arabera antolatzea ziren euren xede amankomunak. Erregimen komunala, beraz, ez zen ordezkarien organismo bakarra, hau da, Frantzia



barne hartuko lukeen Komuna Handia soilik (eta mundu osoa, ostean), baizik eta, areago, lurraldeko herrixka txiki-ek ere hartuko luketen forma politiko modura interpretatzen zen, edo hala proposatu zuen Parisko proletalgo iraultzaileak, behintzat. Komuna elkartuen lurraldea litzateke, elkarre- ta hori politikoki gauzatzen duten eta Komunaz gaindikoak diren ordezkari- ritza-organoekin, nolabait esatearren. Horra espiritu komunero zaharrak pro- letalgoaren diktadura ulertzeko balia- tu zituen gako politikoen deskribapen xume bat.

ONDORIOAK

Komunak bi irakasgai nagusi utzi ditu gutxienez, egungo zein hurrengo gizaldietako iraultzaileen arreta mere- zi dutenak. Batetik, klase borroka ezin dela borroka nazionala bailitzan mo- zorrotu, lanak Kapitalaren kontra da- raman gerra nazioartekoa delako. Biga- rrenik, lanaren emantzipaziorako bide zehatza ere erakutsi digu, hots, neurri iraultzaile jakin batzuk tresna egokiak izan daitezkeela soldatapeko erregime- naren aboliziorako.

Guardia Nazionalako soldadu erra- dikalizatuek eta Parisko behargine- k, Komuna aldarrikatzearekin batera, jendarte berria eraikitzeko lanari ekin zioten. Bien bitartean, Europa zahar- reko klase agintari osoa Aliantza Santuan elkartu zen mehatxu zuzena osatzen zuen komunismoaren gorpuzt bizi- aren aurka. Komunismoaren mamua ja- da ez baitzen manifestuetan agertzen zen hitz soil bat, kale bazterretan he- zurmamitzen zen errealitate material antolatu bat baizik. Hala, proletalgo paristarraren gidaritzapean, Fran- tziako hiriburuak gizarte burgesaren



sehaska izateari utzi zion, eta haren hilobi bilakatu zen. Burgesi- ak, berriz, bere barne-gatazkak alboratu eta pro- letalgoaren kontrako baterajotzea egin zuen altzairuzko ukabiler. Frantziak eta Prusiak, une hartan etsaituta zeu- den potentziek, helburu amankomun bati lotuta itxi zituzten euren ilarak: Lanaren Errepublika hura suntsitu beharra zegoen. Komuna jada ez zen Frantziarentzako mehatxu partikular bat, munduko klase jabadun guztien- tzako arrisku orokorra baizik. Halaxe gorpuztu zuten Bismarckek eta Thier- sek burgesiaren arima, klase horren interes historikoen defentsari errepa- ratu eta proletalgoa azpiratzea helburu nagusi zutela ebatzitakoan, Alsazia eta Lorenaren gaineko lehian hondoratu beharrean.

Proletalgoaren aldean, komuneroek ere klase internazional gisa jokatu zu- ten, Komunaren gobernuaren buruan Alemaniako eta Poloniako langile bana izendatuta. Komunak proletalgoaren gobernu internazional gisa erakutsi



Burgesiaren aliantza kriminalak eta proletalgoaren elkartasun iraultzaileak gizarte modernoko klase borroka nazioarteko mailan garatzen dela argitu zuten, herrialde guztietako klase ekoizleen eta klase jabadunen arteko hil ala biziko dueluan

zuen bere zinezko aurpegia; Frantziak atzean utzi zituen bere harrotasun nazionala eta chauvinismoa, Lanaren Errepublikaren Internazionalaren plataformari bide emateko. Komunak Frantziako batasun nazional erreala ekarri bazuen, estatu osoko proletalgoa bere benetako interesak defendatzen zituen gobernu batean kontzentratu zituelako izan zen; eta horrekin batera, baita mundu osoko proletalgoaren interesak ere. Muga nazionalak gainditututa, zentzu historikoan behinik behin, Frantziako proletalgoak bere interesak eta nazio guztietako proletalgoarenak berberak zirela ulertu zuen. Ondorioz, basakeriaren bandera nazionala jaitsi eta komunismoaren bandera gorria igo zen Frantziako zerura. Burgesiaren aliantza kriminalak eta proletalgoaren elkartasun iraultzaileak gizarte modernoko klase borroka nazioarteko mailan garatzen dela argitu zuten, herrialde guztietako klase ekoizleen eta klase jabedunen arteko hil ala biziko dueluan.

Tradizio marxistatik 1871ko gerra iraultzaileari egin izan zaizkion kritikei begira, hiru dira elementu aipagarrienak: Frantziako Bankuan ez esku hartzeko erabakia, autonomiaren antolaketa kontzeptuarena eta burgesiaren kontrako diktadurarena. Lehendabizikoari dagokionez, aipatu izan da proletalgoak versallistarren ofentsiba geldiarazteko karta aproposa jokatzeko aukera galdu zuela herrialdeko banku nagusia eta hango erreserba ez ukitzeko erabaki politikoa hartuta. Engelsek, adibidez, honakoa baieztatu zuen: «Frantziako burgesia osoa eramango zukeen Versailles Komunarekin bakea sinatzeko presionatzera»⁽¹⁰⁾. Arduradun politikoak, ordea, ez ziren erabaki hori hartzera ausartu. Autonomiaren kontzeptuaren harira, proletalgoaren indar antolatuen atomizazioa eta deszentralizazio estrategikoa sustatzea egotzi izan zaio, beste zenbait akats estrategikoren artean. Lissagarayk adibide konkretu batekin kritikatu zuen kultura politikoa txertatuta zegoen joera hori: «Dagoeneko, bizilagunaren autonomian esku hartzea debekatzen da

Klase borroka azken ondorioetaraino eramaten denean, gizarte burges zibilizatu bakezaleak bere gordintasun gorena erakusten du. Kontratu soziala, giza eskubideak, askatasuna, justizia eta anaitasuna karikatura desatsegin bihurtzen dira

autonomia santuaren izenean, batzorde exekutiboak uko egin zion Versaillesen aurka jotzeko baimena eskatzen zuten Parisen menpeko komunak armatzeari. Thiersek berak ere ez luke ezer hoberik egingo Paris isolatzeko»⁽¹¹⁾. Hirugarrenik, maiz aipatu izan da Komuna ez ote zen epelegi aritu burgesiaren kontrako diktadura iraultzailea ezartzerakoan. Izan ere, egunkari burgesen jarduerak baimendu zuen, ez zuen asmatu ondoren kontraofentsibarako berrantolatuko ziren indar armatuen desertzioa ekiditen, ezta Versaillesen aurkako erasorik begiesten ere. Euren burua babesteko gaitasuna izan zuten uneetan burgesiarekin barkaberatasunez jokatu zutela esan izan da, baina bistan denez, burgesiak ez du inoiz barkatzen.

Hala eta guztiz ere, Parisko Komunaren esperientziak azaleratzen du proletalgoa mundu zaharra eraisteko determinazioarekin antolatzen denean erakusteko gai den duintasuna. Burgesiak, aldiz, bere burua saltzeko eta hipokrisiaren lohietan hondoratzeko gai dela besterik ez du erakusten historiaren aitzinean. Komuneroak ez ziren ezerein gerren garaipena eskuratzean zentratu, eta agian, etsaiekin azaldutako izpiritu gizatiarregi hori izan zen euren ahulguneetako bat. Baina, batez ere, proletalgoarentzako ahaztezina behar lukeen lezioa utzi zuen porrot odoltsuak: klase borroka azken ondorioetaraino eramaten denean, gizarte burges zibilizatu bakezaleak bere gordintasun gorena erakusten du. Kontratu soziala, giza eskubideak, askatasuna, justizia eta anaitasuna karikatura desatsegin bihurtzen dira. /

ERREFERENTZIAK

- 1 *La Comuna de París*, H. Prosper- Olivier Elissagaray, Txalaparta (2019), 23-24. orr.
- 2 *Ibidem*, 27. orr.
- 3 *La Comuna de París*, Marx-Engels- Lenin, Akal (2010), 84. orr.
- 4 *La Comuna de París*, H. Prosper- Olivier Elissagaray, Txalaparta (2019), 119-120. orr.
- 5 *Ibidem*, 207-221. orr.
- 6 *La Comuna de París*, Marx-Engels- Lenin, Akal (2010), 86. orr.
- 7 *La Comuna de París*, H. Prosper- Olivier Elissagaray, Txalaparta (2019), 214-216. orr.
- 8 *Ibidem*, 206. orr.
- 9 *Ibidem*, 194-195. orr.
- 10 *La Comuna de París*, Marx-Engels- Lenin, Akal (2010), 90. orr.
- 11 *La Comuna de París*, H. Prosper- Olivier Elissagaray, Txalaparta (2019), 195. orr.

PARISKO KOMUNA ETA MARXISMOA



Testua
**Carmen
Parejo**



**«Filosofok mundua modu
ezberdinetan interpretatu
besterik ez dute egin,
baina egin behar dena
mundua eraldatzea da»**

**KARL MARX, Feuerbachi
buruzko tesiak (1845)**

Karl Marxek eta Friedrich Engelsek sinatutako *Manifestu Komunista*-ren 1872ko alemaniar edizioaren hitzaurrean, teoria marxistaren guraso ditugunek honako hau diote:

Azken 25 urteetan baldintzak aldatu egin badira ere, Manifestu honetan garatutako printzipio orokorrekin funtsean zehatzak izaten jarraitzen dute. Xehetasunen bat edo beste egokitzearekin aski litzateke. Manifestua-k berak ohartarazten du printzipio horien aplikazio praktikoa, edozein toki eta garaitan, dauden baldintza historikoen arabera izango dela, eta, horregatik, ez dira bereziki azpimarratzen II. kapituluaren amaieran proposatutako neurri iraultzaileak. Gaur formulatu beharko bagenu, pasarte horrek izaera ezberdina izango luke zentzu askotan. Programa hori zaharkituta geratu da bi arrazoi nagusi direla medio: lehenengoa, industria handiak azken 25 urteetan izandako garapen ikaragarria izango litzateke, eta horrek berekin ekarritako antolaketa politikoaren esparruan langileriak egindako aurrerapenak eta Otsaileko Iraultzak utzitako esperientzia praktikoa; bigarrena, Parisko Komunaren eragina izango litzateke, esperientzia horretan proletarioak botere politikoa bere eskuetan izan baitzuen lehendabiziko aldiz.

Paragrafo horrek, gutxienez, marxismoaren apustu teoriko-praktiko iraultzailearen funtsezko bi printzipio adierazten ditu. Alde batetik, Leninek berak zuzen azaldu zuena, hau da, esentzia bera dela errealtate zehatzaren analisi zehatza sostengatzen duela, esentzia izanik marxismoaren arima. Gaur egun, ohikoak dira marxismoa desitxuratzeko saiakerak, bi zentzutan: dela erreformismoaren hareragatik eta premia iraultzailearen ukapenagatik; dela dogmatismoagatik, obra marxista testuinguru ekonomiko, politikoa eta historikoetatik kanpoko errezetario gisa ulertzen delako. Errealitate zehatzaren analisi zehatzak duen funtsezko eta sorrerako premisa hori bi modutan aldarrikatu behar da: alde batetik, iraultzaren etsaien jokoan ez erortzeko, printzipio hori erabiltzen baitute jendearen begietan kapitalismoa sistema atsegin bihurtzeko aitzakia moduan; eta, bestetik, iraultza ekintza iraultzaile koordinatu baten beharrik gabe, fede ekintza kolektibo eta espontaneo moduan gertatuko dela uste dutenen sektarismo faltsuki intelektualean ez erortzeko. Leninengana itzulita, hark esan zuen moduan, iraultza ez da «egiten», antolatu egiten da, eta antolaketa horrek emaitza iraultzaileak emateko modu bakarra testuinguru jakin baten garapen his-

toriko eta dialektikoa ulertzeko eta gizarte horren eraldaketan modu zuzen eta errealistan esku hartzeko gaitasunean datza.

Bigarren puntu batean Marxek eta Engelsek diotenez, «programa hau zatika zaharkituta geratu da», eta hemen metodo zientifikoak apustu iraultzaile marxistaren garapenean duen garrantzia ikusten dugu. Izan ere, badakigu zientziak etengabe egiten duela aurrera teoriak gezurtatuko, birformulatuko edo tesiren bat indartuko duten elementu berriak gehitu ditzaketen ebidentzia zientifiko berrietan oinarrituta. Hor ikus daiteke dogmatismoaren eta zientziaren arteko kontraesan nabarmena. Marxismoak metodo zientifikoa aplikatzaren aldeko apustua egiten du, eta, beraz, ikerketak edo errealtatean izandako aldaketek metodo hori garatzeko sortzen dituzten ezagutzek zehazten dute etengabe. Zentzu horretan, Marxek eta Engelsek teoria marxistak aurrera egiteko funtsezko elementu gisa kapitalismoaren beraren aurrerapena aipatzen dute, baita une historiko jakin bateko praktika iraultzaileak momentu horretan garatzen ari ziren teoriaren hobekuntzan egiten dituen ekarpenak ere. Eta, zailantza izpirik gabe, garai hartako esperientzia azpimarragarri moduan, Parisko Komuna aipatzen dute, bertan «proletarioek, lehen aldiz, botere politikoa beren eskuetan izan baitzuten bi hilabetez».

Nola ez zen, bada, aldaketarik gertatuko euren proiektu politiko iraultzaileak garatzeko funtsezko ebidentzia zientifiko berriak baldin bazituzten?

Zer aldatu zen proletarioak lehen aldiz botere politikoa bere eskuetan izan zezan?

ERREALITATE ZEHATZAREN ANALISI ZEHATZA: MATERIALISMO HISTORIKOA ETA KLASA-BORROKA FRANTZIAN

Hasteko, ezagutzaren teoriaren bi apusturen arteko funtsezko bereizketa hartu behar dugu kontuan: idealismoa eta materialismoa. Idealismoaren abiapuntua ezagutzaren teoriaren oinarrian ideia bera dagoela da, eta, beraz, ideiak eragiten duela errealtatean. Teoria materialistak, ordea, materialtik eta esperientziatik abiatzen dira ideiak osatzeko.

Marxen eta Engelsen materialismo historikoa gizarte ezberdinen garapenen ikerketa zehatza egiten du gizateriaren historia hasi zenetik, eta aldaketa historiko oro esplotatzaileen eta esplotatuen arteko lehia batek eragin duela ohartzen dira: klase-borrokak.

Ekizpen moduei erreparatuz gero, historia lau fase nagusitan bana daiteke: gizarte primitiboak, esklabismoa, feudalismoa eta kapitalismoa.

Gizarte primitiboak (komunistak) soberakina-

ren sorreraren ondorioz igaro ziren esklabismora, hau da, aurrerapen teknologiko primitiboan eta, beraz, jabetzaren ondorioz. Jabetza agertzean, berdintasun falta eta esplotazioa sortzen dira. Ekoizpen-modu bakoitzak bere burua suntsitzeko baldintzak sortzen ditu, esplotatzaileen eta esplotatuen arteko talka saihestezinean oinarrituta.

Marxek ahalegin bereziz aztertu zuen langile klasearen eta iraultzaren egoera bere garaiko Frantziako testuinguruan. Bere esanetan, proletalgoa da ekoizpen modu kapitalista gainditzeko lan historikoa egitea dagokion subjektu politiko iraultzaile bakarra.

Auzi frantsesa zehatz-mehatz aztertzen duten Marxen oinarritzko hiru lan daude, eta horiek materialismo dialektiko eta historikoaren analisi eta esku-hartze metodoaren hurbilketa gisa ulertu behar dira. Lan horiek, *Klase arteko borrokak Frantzian*, *Luis Bonaparteren brumarioaren 18a eta Gerra Zibila Frantzian* dira.

Lan horietan, hiru momentu historiko zehatzen analisia eta horien arteko erlazioa ikusiko ditugu. Bertan, 1848ko iraultzetatik 1871n Parisko Komuna eraitsi zuten arteko denbora-tarteaz aurkeztzen baitu Frantziaren historia, materialismo historikoa erabilia aztertzeko metodo gisa.

Engelsek 1895eko *Klase arteko borrokak Frantzian* edizioaren hitzaurrean (guztiz gomendagarria da osorik irakurtzea), teoria hori Parisko gertaeren ikerketa zehatzari nola aplikatzen zaion ikus daiteke. Ikusmolde idealista orotatik harago, ikerketaren beraren kontraesanak eta ebidentzia zientifikoaren metodoa analisirako eta esku-hartze politikorako aplikatzeko beharra agerian gelditzen dira.

Gauzak horrela, Engelsek motor historikoaren azken arrazoi ekonomikoei berehalakotasunez erantzutea zaila dela onartzen du, eta, hala ere, hitzaurre eta sarrera horietan, dituzten informazio berriak sartzen saiatzen dira, praktika iraultzailean ongi egindakoak eta akatsak zehaztu ahal izateko. Dogmatismo guztietatik urrun.

Aldi jakin baten historia ekonomikoari buruzko ikuspegi orokorra ezin da inoiz unean bertan lortu, geroago baizik, materialak bildu eta baheketa egin ondoren. (F. Engels)

Zentzu horretan, Engelsek 1848ko prozesu iraultzaileen ondoren, behin 1850ean sartuta, Marxek Europako eta bereziki Frantziako testuinguruan gertatutako aldaketa ekonomikoetan sakontzen duela azaltzen du. Informazio berri hori da bai Marx eta bai Engels «kontinenteko garapen ekono-

mikoaren egoera ekoizpen kapitalista ezabatzeke adina heldutasun izatetik urrun zegoela» pentsatzera eramanez zituena; «1848tik kontinente osoaren jabe egin den iraultza ekonomikoaren bitartez argi gelditu da hori, lehenengo aldiz benetako izaera industrialak eman baitie Frantziari, Austriari, Hungariari, Poloniari eta Errusiari, eta Alemania lehen ordenako herrialde industrial bihurtu baitu».

Luis Bonaparteren etorrerarekin, «behetik egindako iraultzen garaia amaituta zegoen behinik behin, eta jarraian goitik egindako iraultzen garaia etorri zen». Horiek sortuko dituzte, ordea, Frantziako mugimendu iraultzailea loratzeko beharrezkoak izango diren baldintzak.

Hortaz, ondo dakigun moduan, Luis Napoleonek Bismarck-en aurka galdu ondoren eta Louis Adolphe Thiers Guardia Nazionalari Parisen haren kanoiak lapurtzen saiatu ondoren, aurrera egitea lortuko duen matxinada sortuko da, 72 egun irauneko dituen eta Komuna izenez ezagutuko dena.

Eta Engelsen hitzetan: «berriro ere argi geratzen zen Parisen proletalgoaren iraultza zela iraultzen artean posible zen bakarra».


Komuneroen aurkako errepresioak eta muturreko indarkeriak bakarrik lortu zuen Komunari amaiera ematea, eta estimazioen arabera 50.000 eraildako zenbata zitezkeen, 17.000 zifrarik kontserbadoreenen arabera. Esperientzia iraultzaile horrek aurrerapauso historiko bat ekarri zuen, subjektu iraultzaile bakarra langilea dela argi utziz.

Amnistia ez zen 1880ra arte iritsiko, eta garai berean, uztailearen 14a (Bastilla hartu zuten eguna) Frantziako egun nazional eta *Marseillesa* ereserki ofizial izendatu zituzten. 1789ko iraultzaren aldarrikapen bare baten bila, Parisko Komunaren oroitzapen hurbil eta «arriskutsua» lurperatzea bilatu zuten.

NAZIOARTEKO «KONSPIRAZIOA»

Parisko Komunari maila mediatikoan nola egin zitzaion aurre ikustea interesgarria da, baita horrek ekarritako ondorioak ikustea ere. Komunaren garai-pena heldu bezain laster, Frantziako prentsa burgesak Parisen gertatzen ari ziren gertaera «izugarriak» adierazten zituen: «herri xeheak bere armada propioa sortu zuen eta bere gobernu komunala aukeratzera deitzen zuen». Horren guztiaren atzean Langileen Nazioarteko Elkarteak eta Karl Marx izeneko pentsalari maltzur bat zeuden.

Nahiz eta jakin badakigun Parisko Komuna ez zela ez Marxen ez Internazionalaren obra izan, eraso horiek marxismoari eta Internazionalari ezohiko publizitatea eman zieten: alde batetik, burgesek



Parisko Komunak, langile mugimenduaren borrokari eman zionaz gain, teoria marxistaren hedapenari eman zion nazioarteko bultzada funtsezkoa izan zen marxismoa planetako puntu guztietan garatu zedin

jada ez zioten *Manifestu Komunista*-ren mamuari beldurrik izan behar, orain mamua hezurmamitu eta haien artean bizi zelako; bestetik, Engelsek berak 1874an Friedrich A. Sorge-ri bidalitako gutun batean zioen bezala: «Parisko Komunari esker, Internazionala potentzia moral bilakatu da Europan».

Era berean, Parisko Komunako erbesteratuak Londresen, Bruselan edo Genevan babestu ziren, baina baita Txilen, Uruguain edo Brasilen ere, eta 1871n bertan haien lekukotasunak argitaratzen hasi ziren.

Horrenbestez, Parisko Komunak, langile mugimenduaren borrokari eman zionaz gain, teoria marxistaren hedapenari eman zion nazioarteko bultzada funtsezkoa izan zen marxismoa planetako puntu guztietan garatu zedin.

Numéro 4.

— 13 Floréal an 79 —

2 SOUS


LE FILS DU PÈRE DUCHÊNE ILLUSTRÉ

Paraissant deux fois par semaine

LE DICTATEUR THIERS



En avant!... foutre de foutre!... et gare aux Parisiens!...







LENIN ETA PARISKO KOMUNA

1911n, Parisko Komunaren 40. urteurrenean, eta sobietarren garaipen iraultzailea baino sei urte lehenago, Leninek «Komunaren oroimenez» izenburua jarri zion testu labur bat idatzi zuen. Idatzi horretan, ezin hobeto jasota agertzen dira zergatik mundu osoko iraultzaileek aldarrikatu eta ulertu behar duten Parisko Komuna, bidea argitu diezaiekeen elementu gisa ulertuta.

Bere eraikuntzari eta suntsipenari dagokienez, Leninek lau puntu nabarmentzen ditu:

1. Modu espontaneoan sortzea, baina kausa material zehatz batzuek determinatuta.

2. Nahiz eta, hasiera batean, burgesia txikia, berriz ere Alemaniaren aurka armak hartu nahi zituzten nazionalistak eta abar elkartzen zituen mugimendu heterogeneoa izan, langileek baino ez zuten bukaerara arte iraun, berriz ere agerian utziz ekin-tza politiko iraultzailea gauzatzeko gaitasuna duen klase sozial bakarra dela.

3. Parisko Komunaren aurreko urteetan Internazionalak langileen formakuntza politikoan jokatu-tako papera azpimarratzea.

4. Komunaren suntsipena burgesiaren nazioar-teko koalizio zabal batek gauzatu zuen. Azpimarrat-zekoa da nola Bismarck-ek Alemaniak preso zituen 100.000 soldadu frantziar libre utzi zituen Paris iraultzailea zapaltzeko. Era berean, nabarmentze-koa da koalizio burgesak nekazari ezjakinak eta probintzietako burgesia txikia Parisko proletalgoa-ren aurka jartzea lortu zuela.

Funtsezko ideia gisa, arrakasta izateko iraultzak funtsezko bi elementu behar dituela azpimarratzen du, eta horrek, aldi berean, Leninek teoria marxis-tari egindako ekarpenetara hurbiltzen gaitu: alde batetik, ekoizpen-indarren garapena dago. Gogora dezagun Engelsek eta Marxek ere erreparatu ziotela xehetasun horri.

Bigarrenik, proletalgoa politikoki formatzeko premia daukagu, eta, horrekin lotuta, alderdi baten eta beste zenbait langile antolakunderen beharra.

Azkenik, zenbait ekarpen egiten dizkio, azken batean, Leninek berak zehazten duen moduan, be-re energiari gehienak ez galtzera bideratu behar izan zituen matxinada horri. Hona hemen ekarpen horiek:

1. Armada herri-armada batez ordezkatzea, hau da, herriari armak ematea. Edo Leninek bere Apiri-leko Tesian esango lukeen bezala, «demokraziaren berme posible bakarra langile bakoitzaren sorbal-dan fusil bat egotea da».

2. Eliza eta Estatua banantzea, eta horrenbestez, instrukzio publikoaren izaera laikoa.

3. Gizarte-arloan: okindegietan gauez lan egi-tea debekatu zen; isunen sistema abolitu zen, eta ugazabek abandonatutako edo gelditutako lantegi guztiak langile-kooperatibei entregatuko zizkien dekretua iragarri zen, ekoizpenari berrekiteko. Eta, jakina, benetako gobernu demokratiko eta prole-tarioa zenez, Komunak administrari eta gobernu-ko funtzionario guztien ordainsariak langile baten soldata arrunta baino handiagoak ez izatea erabaki zuen.

Amaitzeko, Leninek zera dio:

Mundu osoko langileek Parisko Komunaren memoriari ohore egiten diote, hark ez baitzuen tokiko helburu edo jomuga nazional baten alde egin borroka, mundu osoko langileriaren askapenaren alde baizik, azpiratutako eta zapaldutako guztien askapenaren alde.

Komunaren arrazoia iraultza sozialaren arrazoia da, langileen erabateko askapen politiko eta ekonomikoaren arrazoia, munduko proletalgoaren arrazoia. Eta zentzu horretan hilezkorra da.

«Mundu osoko langileek Parisko Komunaren memoriari ohore egiten diote, hark ez baitzuen tokiko helburu edo jomuga nazional baten alde egin borroka, mundu osoko langileriaren askapenaren alde baizik»

V. I. U. LENIN





Parisko Komunak 70 egun iraun bazuen, esperientzia hartatik 46 urtera, 70 urte iraungo duen iraultza sobietarra gailenduko da

ONDORIOAK

Marxismoaren eta Parisko Komunaren arteko loturari heltzeko, ezinbestekoa da marxismoak teoria eta praktika iraultzailearen artean egiten duen loturari heltzea. Parisko Komunak metodo marxistari zer ekarpen egin zion azter dezakegu, baina ezinezkoa da irakaspenaren sakontasuna ulertzea Marxek eta Engelsek prozesu historikoen eta klase-borroka-aren inguruan aurrez egin zituzten ekarpenak ulertu gabe. Era berean, funtsezkoa izango da Lenintzat, eta Lenin garrantzitsua izango zaigu Parisen 72 egunez gertatu zenaren sakontasuna ulertzeko. Orduko hartan gertatua esperientzia espontaneoa izan zen, bere osaeran heterogeneoa zena hasiera batean, zuzendaritza politiko sendorik gabea, eta, hala ere, sozialismora bidean dauden iraultza pro-

zesuen erreferente dena eta izango dena, komunismora iristeko azken instantzian.

Parisko Komunak erakusten digu zeinen garrantzitsua den errealitate zehatzari buruzko azterketa zehatza, dialektika eta materialismo historikoa ulertzea, baldin eta modu arrakastatsuan esku hartu nahi bada eraldaketako prozesu sozialetan. Ez zen perfektua izan eta, gainera, aurrekaririk gabeko esperientzia izan zen. Parisko Komunak, beraz, etorkizuneko esperientzietarako oinarri izango den esperientzia praktikoko baten garapen zehatza aurrera eramatea lortuko du. Horrela, Parisko Komunak 70 egun iraun bazuen, esperientzia hartatik 46 urtera, 70 urte iraungo duen iraultza sobietarra gailenduko da. /

ERREPORTAJEA

Artearen eta kulturaren lekua Parisko Komunan

Testua — **EKIDA** kultur ekimen sozialista



Maximilien Luce
A Street in Paris in May 1871

Testu honek Parisko Komunak artearen eta kulturaren esparruetan utzitako esperientziaz dihardu. Aurten mende eta erdi bete izanak erakutsi duen

gauzarik nabarmenetakoa da, segur aski, Komunaz zeinen gutxi dakigun, eta hartaz ezer gutxi badakigu, are gutxiago haren garrantzi artistiko-kulturalaz. Komunistontzat, ordea, ezinbesteko esperientzia da Parisko Komuna, 71 egun iraun zuen proletalgoaren gobernu miresgarri hura, zeinetara jo behar baitugu etengabe irakaspenak atera nahi baditugu. Irakaspen politiko horien artean sartu beharko lirateke arteari eta kulturari buruzkoak ere: artisten posizioak, izandako eztabaidak, hartutako erabaki politikoak, guztiak dira kontuan hartu beharrekoak arteari ikuspuntu iraultzailetik begiratu nahi liokeenarentzat. Izan ere, Komunaren esperientziak artearen historia sozialaren pasarte garrantzitsu bat osatzen du, baita pasarte hori ulertzeko gakoak eman ere. Hemen egingo duguna horren guztiaren errepaso labur bat da.



Paul Verlaine

At the end of his life, from *La Plume*, c. 1890

LUXUZKO LANGILEAK: ARTISTAK IRAULTZAREN KONTRA

Errotikako iraultzek modurik eta argienean azalerarazten dituzte antagonismo politikoak, eta horrek nahi-taez eragiten du bizitza sozialaren alderdi guztietan, baita arte eta kultur esparruetan ere. Gainera, Frantziaren egoera soziopolitikoak bereziki nahasia izan zen XIX. mende erdialdetik aurrera, eta giro iraultzailea nabarmena. 1848ko errebolta errepublikarrek eta haren ondorengo berrezarpen monarkiko bonapartistak arrastoa utzia zuten hainbat artisten ideia eta iritzi politikoetan; izan ere, Erromantizismotik gertu zebiltzan artistek Errepublikaren eta aurrerapen sozialaren ideiekin egin zuten bat XIX. mendearen lehen hamarkada haietan, proletalgoaren eratze sozialaren eta politikoaren garaietan, hain justu. Askok izan ziren –haietako hainbat literaturaren historia moderno-ko izen esanguratsuenetakoa– iraultza errepublikarraren alde lerratu zirenak: Gustave Flaubert, George Sand, Alphonse Lamartine, Victor Hugo eta Charles Baudelaire, kasurako.

Handik aurrera, ordea, egoera erabat aldatu zen. 1848ko iraultzetatik ateratako irakaspen handienetakoa izan zen hurrengo iraultzak izaera proletarioa izango zuela, Marxek formulatu zuen gisara. Parisko Komuna izan zen horren froga, baita haren aurrean hainbat artistek hartu zuten jarrera ere.

1871eko martxoaren 18tik aurrera, proletalgo iraultzaileak Parisen gainera botere-hartzea aldarrikatu zuen Komuna onartuta eta ezarrita. Ordura arte iritzi politiko aurrerakoiak mantendu zituzten hainbat artistek erabat aldatu zuten beren posizioa Komunaren aurrean. Gustave Flaubertek, *Madame Bovary* maisulanaren egileak eta lehenago errepublikazalea izanak, esaterako, Komunako kideenganako muturre-rainoko gorrotoa garatu zuen. Honela idatzi zion George Sandi gutun batean, 1871ean bertan: «Nire ustez, Komuna osoa galeretara kondenatu behar genuen eta ergel odoltsu horiek Parisko



Gustave Courbet
Les Cribleuses de blé (1854)

hondakinak jasotzera behartu, presoen gisara lepotik kateatuta». Émile Zola ere, orduan gaztea eta kontserbadorea –gerora bihurtuko zen idazle konprometitu paradigmatico eta langile-borrokak islatzen zuten nobela ezagunen egile–, Komunaren kontra lerratu zen, Gustave Courbet artista iraultzaileaz publikoki trufatuta.

Hain tarte laburrean halako aldaketa gertatu izana harrigarri suerta liteke agian, baina azalpena, esan bezala, 1848ko iraultzak eta 1871koak zuten klase-eduki erabat desberdinean bilatu behar genuke: hasiera batean II. Errepublikaren alde egon zirenek guztiz posizio kontrairaultzailea hartu zuten iraultzaren subjektua proletalgoa bihurtu zenean eta gainditu beharrekoak ordena sozial burguesa eta klase-gizartea bera bihurtu zirenean. Iraultzarekin, artista horietako askok beren pribilegioak arriskuan ikusi zituzten, eta izan ziren armekin defendatu zituztenak edo Paristik alde egin zutenak ere. Hala ere, sakonago ere joan gintezke. Erromantizismotik gertu kokatzen ziren artista asko ideologia aristokrata batean finkatu ziren: zibilizazioaren kontzepzio elitista batetik, uste zuten elite nobleen gobernu batek soilik ber-

ma zezakeela gizartearen garapen estetiko eta intelektual. Zentzu horretan, gehientsuenak antiburgesak ziren: gizarte industrial eta moralismo burgesa arbuiatzen zuten; hala ere, horrek ez zituen iraultza proletarioaren aldeko egiten. Kontrara, posizio elitista bat hartuta, gehientsuenek herri langilearenganako gorrotoa garatu zuten, proletalgoaren politizazioaren aurrean. Hortik ulertu behar da proletalgo iraultzaileari «barbaro» deitu izana edo «animalia» edo «ero». Charles Leconte de Lisle poeta frantsesaren kasua argigarria izan daiteke. Poeta izateaz gain, herriz herri aritu ohi zen hizlari iraultzaile gisa, harik eta egun batean herritarrek harrika hartu zuten arte. Honela esan zuen: «Zeinen ergela den herria! Esklaboen betiereko arrazada, ezin duena bastarik eta uztarririk gabe bizi. Ez gara, beraz, berriro haren-gatik borrokatuko, gure ideal sakratu-gatik baizik».



Ernest Meissonier
The Barricade, rue de la Mortellerie (1848)

Lanaren esplotazioa eta klase-gizartea bera abolitzeko saiakera hartan, arteak eta kulturak ere klase-pribilegio izateari utzi behar zioten derrigorrez, berreskuratu egin behar zituen proletalgoak «eguneroko lanerako»

Ideal sakratu hori ez zen, jakina, Komunaren ideal bera: artista aristokratek ikusi zuten beren interesak eta Komunako subjektuarenak ez zirela berak. Lehenengo horiek nahi zuten gizartea eliteek gobernatutako zen, jakintza intelektuala eta gustu estetikoa izango zuten eliteek, artistek arazo materialik gabe beren bizitza arteari eskaintzea berma zezaten, eta aukera hori herri xeheari kontrajartzen zioten. Baudelairek zioen: «Aristokraziarik gabeko herri batengan, edertasunaren kultua usteldu, murriztu eta desagertu baino ez daiteke egin». Hain justu, garai hori bera da artista aurrez erromantikoak politikatik aldentu ziren garaia, beren jardunbide artistikoa gizartetik ahalik eta aldentuen egitea bilatu zuten, arteak bere arau propioen arabera jardun zezan. *Artea arteagatik* ideia horren sorrera erabat zegoen errotuta posizio aristokratiko elitistan eta, ondorioz, klase-gizartearen betikotzean. «Gu luxuzko langileak gara», esan zuen Flaubertek, «Artea Arteagatik maitatu beharra dago; bestela, lanik xumeenak gehiago balioko luke». Esan bezala: burgesiaren kontrakoak, izan, izango ziren, baina halaber da nabarmena herri langilearenganako gutxiespena eta artegintza pribilegio gisa ere mantentzeko nahia.

Komunaren eta sozialismo iraultzailearen posizioa oso bestelakoa zen. William Morris artista sozialista britainiarrak —bide batez, Parisko Komuna gertutik bizi zuenak, arrasto garrantzitsua utziz bere pentsamenduan— ahotsa altza zuen halako ideien kontra. Haren ustez, *arte* *arteagatik*

predikatzen zuen eskolak, finean, «gutxi batzuek gutxi batzuentzat landutako» arte bat aldarrikatzen zuen, eta «beharrezkoa zuen —eginbehar bat, eginbeharrik onartzekotan— jendetza arrunta gutxiestea». Morrisek justu kontrara pentsatzen zuen: «Artearen kausa herriaren kausa da. (...) Egunen batean Arte berreskuratuko dugu guretzat, bizitzaren plazererako, alegia; Arte berreskuratuko dugu gure eguneroko lanerako».

POEMAK ETA ZAPATAK: ARTISTAK IRAULTZAREN ALDE

Parisko Komunak zentzu praktikoa eman zien Morrisen hitzei. Marxek, gertakarien bere irakurketan, Komuna «lanaren emantzipazio ekonomikoa gauzatzeko forma politiko azkenean deskubritua» izan zela esan zuen. Zein zentzu izan zezakeen forma politiko horrek kulturaren eta artearen esparruetan? Hain justu horixe: lanaren esplotazioa eta klase-gizartea bera abolitzeko saiakera hartan, arteak eta kulturak ere klase-pribilegio izateari utzi behar zioten derrigorrez, berreskuratu egin behar zituen proletalgoak «eguneroko lanerako».

Arestian ikusi bezala, artista asko eta asko Komunaren kontra lerratu ziren arren, aldeko beste hainbat ere izan ziren. Are, izan zen Parisko gertakarietan aktiboki parte hartu zuenik. Victor Hugok, *Les Misérables* nobela erraldoiaren egileak, esaterako, Komunaren alde egin ez arren, gogor salatu zuen burgesiaren errepresio bortitza eta harreman estua mantendu zuen Louis Michel bezalako militante komunero iraultzaileekin. Aipagarria da Auguste Villiers de l'Isle-Adam idazlea ere, ezkerreko hegeldarra eta *Ipuin krudelak* bilduma eszentrikoaren egilea, hasieratik paratu zen Parisko proletalgoaren alde. Bestalde, hor dauzkagu Paul Verlaine eta Arthur Rimbauden kasu bitxiak, zeinek lotura estua izan baitzuten Komunarekin, nahiz eta bi-biak idazle moderno handi gisa izan ezagunak: Verlaine aktiboki hartu zuen parte Komunari eta gero erbestera joan behar izan zuen,

Félix Régamey

Paul Verlaine eta Arthur Rimbaud (1872)



eta Rimbaudek, zuzenean parte hartu ez bazuen ere, Komunaren aldeko jarrerera sendoa erakutsi zuen behin baino gehiagotan, bai poemetan eta baita iritzi politikoetan ere. Haren obra despolitizatzeko etengabeko saiakera badago ere, idatzi zuen garai laburrean sarritan erakutsi zuen proletalgoaren emantzipazioaren aldeko jarrera. Honela zioen 1870ko bere «Errementaria» poeman:

*Erantzi kapelak, burgesak! O! Herietek dira Gizonak!
Gu gara langileak, Jauna! langileak! Gu gara
Garai berri handietarako bizi garenak, non jakin egin nahuko baita,
Non gizonak goizean hasi eta arratsauro forpatuko baita,
Hilburu handien bilatzaile, hausa handien bilatzaile,
Non, apurka-apurka garaile, beratuho baitatu gureak
Eta altxatuho baita Gurearen gaindi, zaldi gurea nola!
O! Kojako sagar-lurdina bhaiak! Fini amak!*

Eugène Pottier ere, langile sozialista eta figura ezinbestekoa gure kronika honetan, poemak idazten ari zen Komuna aurreko garai hartan. Ordurako Lehenengo Internazionalako kidea, gerora idatziko zituen *Internazionala* ereserkiaren bertsoak, baina 1870ko poema batean jada honela esan zuen: «Izenda dezagun Komuna gorria / Gorri, egunsenti bat nola!»

Artista plastikoen artean ere giro iraultzaileak eragin nabarmena izan zuen. Haien artean aipa daitezke Jules Dalou, James Tissot edo Honoré Daumier pintore, eskultore eta estanpatzaileak. Azken hori artista iraultzailearen adibide nabarientetako gisa gogoratzen dugu, gainera: 1830eko, 1848ko eta Komunako iraultzetan parte hartua, muturreraino eraman zuen proletalgo sozialistaganako konpromisoa artean islatzeko asmoa. Komuna aurreko garairako, bere garaiko langileen borroka eta miseria erakusten zuten lanak zi-

tuen eginak, baita klase etsaiaren ankerkeria erakusten zutenak ere, «aristokrazia lepazuria»rena bereziki.

Gustave Courbet da, ordea, artista plastikoen artean aipagarriena, seguraski, bere garrantzi artistiko eta politikoagatik. Erromantizismotik erreallismorako saltoaren paradigma gisa ezaguna izanagatik, Courbetek beti erakutsi izan zituen bere ideia sozialistak pinturaren bitartez. Bera ere langile-jatorrikoa eta artista autodidakta, XIX. mendearen erdialderako jada modu argi eta orijinalean adierazi zuen proletalgoarenganako bere atxikimendua. 1849koa du, esaterako, *Ehorzketak Ornansen* koadro ezaguna, non koloreen erabilerarekin islatu nahi izan baitzuen nobleen eta langileen arteko bereizketa soziala. 1855eko *Artistaren langela* ederra ere Courbetek bere egiletzari aitortzen zion izaera sozialaren metafora original gisa har liteke. Finen, Parisko Komuna ezarri eta geroa-go aipatuko dugun Parisko Artisten Federazioa martxan jarri aurretik, bazen giro bat arte-munduan, indartzen ari zen langile-mugimendu iraultzailearen parte ziren artistek osatua.

Honoré Daumier

The Third-Class Carriage (1862–1864)



Agerikotik harago ere joan behar genuke, ordea, eta Komunako protagonista politikoa izango zen proletalgoaren orduko bizimoduan ere gehixeago miatu. Izan ere, langileen eguneroko bizimoduaren eta esperientzia estetikoen artean zubiak altxatzen ari ziren, eta zubiok bestelako arte-ekoizpen bateranzkoak izan zitezkeen. Esate baterako, aipatu izan da XIX. mendean zehar garatzen dela «poeta langileen» —*poètes ouvriers*— fenomeno, egunerokoa lantegian igaro ondoren denbora librearen poesia idazteari eskaintzen zioten proletarioena, alegia. Poesia ofizio gisa izan beharrean, ofizioaren ordutegiak eta nekeak lagatako tarteetan idazten zutenak ziren poeta langileak, eta haien obra haien ametsen artxibo gisa irakurri liteke. Eugène Pottier, arestian aipatu duguna, haietako bat izan zen. Jernalari, okin, bulegari edo inprentako diseinatzaile izan zen garaian, eta lan politikoari emana zegoen bitartean, gauari orduak lapurtuta, idatzi zituen honelako bertsoak:

Horrela idatzi zituen Pottierrek proletalgo iraultzailearentzat ereserki edo lema bihurtuko ziren hainbat poema. Edukitik harago, ordea, bazuen garrantzi berezia langileek poesiaren jarduna ere beren gain hartu izanak. Ekintza hori bera poesiaren —eta artearen, oro har— klase-pribilegioa gainditzeko aurreraria zen. Bide horretan, aipatzekoa da Napoléon Gaillard paristarraren kasu bitxia ere. Artisaua eta zapataria, Gaillardek arte gisa deklaratu zuen sutsuki bere artisautza- eta zapataritza-lana, Arte Ederren eta arte industrialen arteko bereizketarekin hautsiz. «Langiletzat dut neure burua, “oinetako artista”tzat», idatzi zuen, «eta, zapatak egiten ditudan arren, eskubidea daukat lumak astintzeagatik beren buruak langiletzat dituztenek besteko errespetua izateko». Ideia hori denik eta muturrik ederrerraino eramanda, Komunaren garaian eraiki zuen barrikada «Gaillard Gaztelua» izendatu zuen eta, horrela, barrikada bat ere artelan gisa deklaratu.

Giro iraultzaileak arte-munduan eragin nabarmena zeukan Komuna aurretik: artistek eta poetek, konpromiso sendoz, beren lanekin proletalgoaren bizitzaren eta borrokaren berri eman nahi zuten. Halaber, garai hartarako jada, Komunak ekarriko zuen «lanaren emantzipazio ekonomikoa» kontsignak lan artistikoan izan zezakeen zentzua gorpuzten ari zen bizimodu proletarioan bertan. Tartean, artisautzaren eta artearen bereizketarekin amaitzea: industrializazio garaira arte «arte» artisautzaren zentzuan uler-tzen bazen, handik aurrera aparteko esparru bilakatzen da, lan intelektua-laren eta esku-lanaren arteko banaketarekin batera. Komuna aurreko urteen eta Komunako kultur politiken asmoa zen banaketa horrekin amaitzea. Ez, ordea, erregresio kontserbadore gisa, mundu berriaren eta proletalgoaren emantzipazioaren zentzuarekin bat zihoan proiektu gisa baizik.

Mundua azala muelatuko du.
Miseria, izea zure negatuk,
Gustuk ipentzen duzue apaingarri bat kapelan,
Erutaina eta medina,
Birikar-zorra, bete zure kaxak!
Birhor, zoz landan barrena!
kantak!
Birhor, zoz landan barrena!

Gustave Courbet
Ehorzketa Ornansen (1849)



KOMUNAREN EGUNAK: PARISKO ARTISTEN FEDERAZIOA ETA KULTUR POLITIKA

1871ko apirilak hamalau ditu eta lauhun pertsona baino gehiago daude bilduta Sorbonako Medikuntza Eskolan. Ez dago orain eskolako irakasle-rik bertan, Versallesera alde egin dute denek proletalgo iraultzailearen mehatxuaren beldurrez. Orain, eskultoreak, pintoreak, poetak, artista industrialak daude bertan, Courbetek egindako «Artistei deia» dokumentuari erantzunda bildu dira, eta zer entzungo adi daude. Pottier manifestu bat irakurtzen ari da ahots gora, zeina, behin onartuta, Parisko Artisten Federazioaren manifestu gisa argitaratuko baita bihar-munean. Manifestuak aldarrikatzen duen bezala, goraino betetako gela hori «inteligentzia artistikoen asanblea bat» da, ez pintoreek eta eskultoreek soilik osatua, baita artisauek eta antzekoek ere.

Bilera hartan osatu zen Parisko Artisten Federazioa. Courbet izan zen

presidente hautatua eta harekin batera 47 delegatu izendatu ziren –urte beterrako hautatuak eta, Komunako gainontzeko postuen gisan, ezeztagarriak– askotariko diziplinetako jendearekin: arkitektoak, eskultoreak, inprimatzaileak, kritikariak. Apirilaren 15ean argitaratu zen manifestuak argi dio: «Errepublikak komunalaren printzipoei atxikitzen zaizkien artistak federazio modura antolatu dira».

Federazioak, hasieratik, «artistek beren interes propioak kudeatu» zitzatela bilatzen zuen eta artearekin eta kulturarekin lotutako zenbait egin-behar hartu zituen bere gain. Batetik, monumentuak, museoak, galeriak eta liburutegiak kudeatzeko mandatua hartu zuen, guztientzat eskuragarri egon zitezen eta ez zitezen berriz interes pribatuen arabera antolatuak izan. Bestetik, hiru egin-behar: «iraganeko altxorren kontserbazioa; orainaldiko elementu guztien exekuzioa eta azpimarratzea; eta etorkizunaren erregerazioa irakaskuntzaren bitartez».

Federazioak, bestalde, *L'Officiel des Arts* izeneko tribuna ere sortu zuen, non auzi estetikoek eta artistaren eta publikoaren arteko harremanaz eztabaidatu zezakeen interesa zuen edozein herritarrek.

Egin-behar horiek guztiek, hala ere, bazituzten oinarri batzuk eta haietan topa liteke Parisko Artisten Federazioaren indarrik handiena. Bata, «artearen hedapen askea» zen, «gobernuaren tutela orotatik eta pribilegio orotatik askatua» zen. Bigarrena, «federazioko kide guztien arteko eskubide-berdintasuna» izan zen. Hirugarren oinarriak, aldiz, zioen «artista bakoitzaren independentzia eta duintasuna guztien esku» gelditzen dela, «artisten sufragio unibertsalez hautatutako komite baten sorrerarekin», eta «komite horrek elkartasunaren lokarriak indartzen ditu[ela] eta ekintza-batasuna gauzatu».

Beharrezkoa da hurbilagotik begiratzeari oinarriari. Alde batetik, «eskubide-berdintasuna» aitoritzen die Federazioak bere kide guztiei, baina hori ez

L'INTERNATIONALE

Paroles de
Eugène

POTTIER

Chant Révolutionnaire

Musique de

DEGEYTER



EN VENTE

A LA LIBRAIRIE POPULAIRE ET MUSICALE

38. Rue Quetonne, PARIS

[Artearen] independentziaren auzia ere ezin da ulertu gainontzeko auziei lotuta ez bada: ez da autonomia abstraktu eta pribilegiatua eskatzen dutena baizik eta lan artistikoaren emantzipazio osoa, gizarte burgesak inposatutako mugetatik askatuta

da auzi formal bat soilik. Aipatu dugun bezala, askotariko diziplinetako artistek osatu zuten komitea eta Federazioa bera, berdin ordurako Arte Eder kontsideratzen ziren diziplinetakoak zein arte industrialekin edo artisautzarekin lotuagoak. Finean, kide horien guztien berdintasunak diziplina horien berdintasunaren esanahia zeukan: guztiei airtortzen zitzaion artista izaera eta, beraz, guztiek egin zitzaizketen ekarpenak beren esparruetatik. Pottierrek berak garrantzi handia eman zion kontua izan zen, «arte industrial» izendapenari oker iritzi zion eta ahalegina egin zuen guztiak egiazko artista gisa hartuak izan zitezen. Posizio eta erabaki horrek, halaber, berekin darama lan intelektualaren eta eskulanaren arteko bereizketarekin amaitzea, baita Arte Eder deituei izaera altuago bat ez ematea ere.

Hortik ulertu behar da, hain justu, artea «pribilegio orotatik» askatzeko nahia ere: artistak ez du inolako eskubide gehigarriarik artisauarekin alderatuta, are, ezta bestelako edozein langilerekin edo herritarrekin konparatuta ere. Era berean, «independentzia»ren eta «hedapen askea»ren auzia ere ezin da ulertu gainontzeko auziei lotuta ez bada: ez da autonomia abstraktu eta pribilegiatua eskatzen dutena –hasieran ikusi dugun artea arteagatik ideia- ren zentzuan, esaterako–, baizik eta lan artistikoaren emantzipazio osoa, gizarte burgesak inposatutako mugetatik askatuta. Izan ere, independentzia hori ez baita pribilegio gisa kontzebitzen, «lanaren emantzipazio ekonomi-

koa» kontsignaren aplikazio artistiko gisa baizik. «Errepublikak komunalaren printzipioei atxikitzen zaizkien» artistak dira guztiak: erabat lotuta ulertzen dituzte beren lana eta Komunaren proiektu iraultzailea.


Parisko Artisten Federazioak garrantzi handia dauka, dudarik gabe, gagozkion gaian. Komunako egunetan izan ziren, ordean, eta ezin aipagabe utzi, kulturari lotutako bestelako jarduerak batzuk ere. Hezkuntzari lotutako ekarpen garrantzitsuak egin zituen Komunaren esperientziak, hezkuntza aske baterantzko bidean metodologiaren auziari helduta, eskola publiko unibertsala eta egiazki laikoak dekretatuta eta abar. Monumentuen auziari dagokionez ere, oro har «iraganeako altxorrak» kontserbatzea bilatu bazuten ere, izan zen kontrakorako erabaki politikorik ere. Komunako azken egunetan, Courbet berak planifikatuta, Napoleonen omenez altxatutako Vêndome Plazako Zutabea eraitsi zuten, mundu zaharra-

ren eta herrien arteko gerra patriotikoaren sinbolo zela iritzita.

ITXAROPENAREN ERROMESAK: PORROTA ETA ERBESTEA

Komuneroek ez zuten askoz gehiago egiteko astirik izan. Bada koadro bat Maximilien Lucerena: bost komunero ageri dira, kalean hilotz, armak oraindik eskuetan dituztela, kaleko atari guztiak egur-oholez itxita daudela. Koadroak *Parisko kale bat 1871eko maiatzean edo Komuna* du izenburua, eta ezin luke data horretako Parisko proletalgo iraultzailearen egoera hobeto deskribatu. Hain zuzen, 1871eko maiatzaren 28an, hirurogeita hamai- ka egunez Parisen kontrola mantendu ondoren, errepresio bortitzetan bortitzenaren bidez garaitu zituzten. Rimbaudek, diotenez Komunaren egunetan Parisa abiatu eta heltzerik izan ez zuenak, honela idatzi zuen porrotaz *Orgia paristarra edo Paris birpopulatu* da poema gogoangarrian:

*Ekaitzak poesia gorena kontsagratu zizun;
Urdarren nerabe handiak inarrotan sartu;
zure obra irakiten, heriotza orroaka, Hiri hautatua!
Karrankariak pilatzen dituzte turuta goraren bihotzean.
Poetak Asekabetuen negar-sotinah hartuko dituzte (...).
Bere estrofeak, saltokak: ahaho! ahaho! garistaginak!
Gizartea, dena berresarritu dago!*



Napoleon Gaillardaren karikatura

Thiersen armadak, Versallesen go-tortutakoan aginduetara, gogor eraso zion Parisi eta odolez garaitu zuen proletalgo iraultzailearen gobernua. Milaka eta milaka komunero izan ziren fusilatuak, dudarik gabe langile-mugimenduaren historiako atalik odoltsuenetakoa osatuz. Beste asko izan ziren erbestera alde egin behar izan zutenak, errepresiotik ihes, eta beren bizimodua beste nonbait finkatu behar izan zutenak. Courbeti kartzela-zigorra eta isuna egotzi zizkieten Vèndome Plazako Zutabearen eraisketa antolatzeagatik eta, behin kondena beteta, Suitzan hil zen, erbestean. Pottierrek berak ere AE-Betara joan behar izan zuen eta handik jarraitu zuen lan politikoa egiten eta poemak idazten; tartean, 1871an bertan idatziko zuen *Internazionala*, gerora musikatu eta langile-mugimendu iraultzailearen betiereko ereserki bilakatu-ko zen testua bera. Louis Michelek ere, Komunako kide garrantzitsua eta bera ere poeta, erbestera joan beharra izan zuen. Handik idatzi zion Victor Hugori, porrotaren berri emanez: «Bizitzaren uzten bagaituzte, erbestera gaitzela ideien alde setatsu izan garenok; beste guztiak, gurekin ustekabea topo egin duten biktima koitaduak, aske utzi ditzatela». Hain justu, «ideietan setatsu» zirelako, iraultzaren aldeko lanean etsi gabe jarraituko zuten askok eta askok, eta, hala, Komunaren ideiak hedatzeko ere balio izango zien erbesteak komuneroei. William Morrisek *Itxaropenaren erronesak* poema luzea idatziko zuen haien omenez:

Eta bidetean banindola, nire bihotzaren beti haurre:
«Hilko dira agian; bixiko dira eta agian porrik; baina nire nireka badabilt,
Parisen duela gurtia eman, eta han Parisen hil!»
Eta esan nuen, «Ekitzen eguna eta liberazioaren eguna gertatzen da».



Maximilien Luce

El zapatero. Ático en la Glacière (1883)



Parisko zutabeak eraisten Courbet irudikatzen duen Père Duchêne-ren portada (1871)

Numéro 7.

— 24 Floréal an 79 —

2 SOUS

LE FILS

DU

PÈRE DUCHÊNE

ILLUSTRÉ

Paraissant deux fois par semaine

LE CITOYEN COURBET



Foutant en bas toutes les colonnes... de Paris.

Akabo Komunako egunak, Parisko langile-gobernua, Artisten Federazioaren proiektua; dena: hondakin eta odol artean geldituko ziren, kale gainean hilotz, proletalgoaren iraultza-grinak noizbait berreskuratu arte. Horren frogatzat har daitezke handik hamarkada batzuetara artista iraultzaileen belau-naldi berri batek Komuna oroitzeko egindako lanak, Ilya Repin errusiarra-*ren Urteroko oroitzu-bilera Komuneroen Hormaren ondoan*, baita Devambez frantziarraren *Deia* edo *Itxoiten* lanak ere. Izan ere, Pottierrek kantatuko zuen bezala, Komuna ez zen hilik proletalgo iraultzaileak bere eginbehar historikoa gauzatzeko borrokari zerraion artean:

Hil zuten chiza - balaz,

Metrailato - tiroz,

Eta haren bandera astineku zuten
hau baztertsuan

Eta berrero leku jendetsuak

Inklartsuera dela uste du.

Horrek guztiak ez du esan nahi, (...)
komuna hilda dagoenik.

Parisko Komunaren esperientzia aberatsak, hasi zentzu politiko orokorretik bertatik eta Artisten Federazioaren kultur politiketaraino, irakaspen asko gordetzen ditu oraindik ere. Horregatik da ezinbestekoa gaur ere esperientzia haren alderdi guztiak aztertzea

ONDORIO MODURA

Marxek esana da Komunaren garrantzia haren «existentzia faktikoan» zetzala: programa eta ideal zehatz batzuen gauzapenean baino, gertakizunean bertan. Arteari eta kulturari ikuspuntu sozialistatik begiratu nahi dionarentzat ere hala da. Parisko Komunaren esperientzia aberatsak, hasi zentzu politiko orokorretik bertatik eta Artisten Federazioaren kultur politiketarako, irakaspen asko gordetzen ditu oraindik ere. Horregatik da ezinbestekoa, lehenago egin den bezala, gaur ere Parisko Komunaren alderdi guztiak aztertzea. Guk hemen artearen eta kulturaren gaiei erreparatu diegu.

Izan ere, Komunaren garaiak eta berak garai hari egindako ekarpenek, artearen historia sozialaren pasarte oso garrantzitsu bat osatzen dutelakoan gaude. Proletalgo iraultzailearen aurka lerratu ziren artistez hitz egin dugu lehenbizi, baita haien klase-posizioaz eta proiektu artistiko-sozialaz ere. Bestetik, Komuna aurreko garai iraultzaileaz, esperientzia komuneroaz eta politika artistiko-kulturalaz ere hitz egin dugu. Bi proiektu antagoniko horien gatazka erreala da artea ere klase-borrokak zeharkatzen duelako frogaz: ezin da ez bata ez beste ulertu garai hartako klase-konposizioari eta hartan oinarritutako interes politikoei lotuta ez bada. Hor dauzkagu, esaterako, lan artistikoaren ulerkera kontrajarriak, izaera pribilegiatu gisa ulertzen zuen batek eta guztien zerbitzura egongo zen produkzio sozialaren adar gisa besteak. Artearen independentziaren ulerkera oso desberdinak topatzen ditugu bi proiektuetan, bestalde: independentzia klase-pribilegio gisa uler zitekeen ala, justu kontrara, artearen funtzio sozialarekin lotu.

Sozialismoaren proiektu historikoak, lanaren emantzipazio ekonomikoaren ezarpenak, berarekin darama lan artistikoaren emantzipazio osoa ere. Gizarte burgesak inposatutako baldintza guztietatik —merkantilizazioa eta soldatapeko izaera, sarbide mugatua, gizartetiko bereizketa eta beste—

askatu beharra dauka arteak, libreki eta osoki garatuko bada, eta hori ezin daiteke lortu kapitalismoaren gaindipenarekin baino. Komunaren esperientzian daukagu horren frogaz, baita aurrera begirako gako batzuk ere: Arte Eder deituen eta bestelako lanen arteko bereizketarik eza, jakintza artistiko eta kulturalerako sarbide unibertsala eta artearen funtzio sozialaren garapena gainontzeko lan guztienarekin batera.

Azkenik, saiatu gara artikulua aprobetxatzen Komuna garaiko eta harekin lotutako artelanak gogorarazteko ere. Izan ere, proletalgoaren estrategia iraultzaileari lotutako arte-espresioen corpus bikain bat ere ematen digu Komunaren esperientziak, arte sozialistaren adibide eder zenbait, artea borroka politikorako baliabide gisa ulertu zuten artista iraultzaileen zerrenda bat, eta haiekin guztiekin batera, irakaspenak. Funtsean, etengabe itzuli beharreko iragana da komunistontzat Parisko Komuna, baita alderdi artistiko-kulturaletik ere, ikusi dugunez: artearen potentzia iraultzailea berraktibatzeke lana bere gain hartzen duenak maiz jo beharko du hara. /

BIBLIOGRAFIA

Bourdieu, P. (1996). *The Rules of Art. Genesis and Structure of the Literary Field*. Massachusetts: Polity

Lidsky, P. (2016). *Los escritores contra la Comuna*. Madril: Dirección Única

Lissagaray, P. (2012 [1876]). *History of the Paris Commune of 1871*. Londres: Verso

Marx, K. (1976 [1871]). *La guerra civil en Francia*. In *Marx-Engels Obras Escogidas*. Mosku: Editorial Progreso

Michel, L. (2021). *Erbesteko gutunak Victor Hugori*. Iruñea: Katakarak

Pottier, E. (1887). *Chants revolutionnaires*. Paris: Bureau du Comité Pottier. (Hemendik hartua: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k81559w.pdf>)

Rancière, J. (2013). *La noche de los proletarios*. *Archivos del sueño obrero*. Buenos Aires: Tinta Limón

Rimbaud, A. (2003). *Poesía (1869–1871)*. Madril: Alianza Editorial

Romero, M. eta **Gutiérrez-Álvarez, P.** (2016). *Arte y Revolución en la Comuna de París*. Jaén: Piedra Papel Libros

Ross, K. (2016). *Lujo comunal. El imaginario político de la Comuna de París*. Madril: Akal

Sarrionandia, J. (1988). Idazlegoa eta iraultza I. In *Marginalia*. Donostia: Elkar

Williams, R. (2017). *Culture and Society 1780–1950*. Londres: Vintage

Hainbat egile (1971). Manifeste de la Federation des Artistes de Paris, Journal Officiel (apirilak 15)

Testua — **Markel Samaniego**
Irudia — **Zoe Martikorena Santacana**



FORMA POLITIKOA ETA BOTERE SOZIALA:

**Komunaren momentu
politiko eratzaileetara
sarrera orokorra**

Testu honetan Parisko Komuna, proletariotzaren forma politiko positibo gisa, aztertzeke eta interpretatzeko asmoa dut. Horretarako, botere komunalaren funtsezko momentu eratzaileei helduko diet, batik bat Marxen, Lissagarayen eta Leninen testuak oinarri hartuta. Forma politikoan fokua jartzeko adinako zehaztasunarekin helduko diet testuinguruko elementuei, eta, horrenbestez, artikulu honen helburuak eskatzen duen sakontasun mailara mugatuko naiz.

Besteren artean esango nuke bost direla Komunan garrantzia handiena duten une politikoak: 1) momentu materiala 2) lehen momentu instituzionala: botere sozialarena 3) ekintza estrategikoaren momentua 4) bigarren momentu instituzionala: botere delegatuarena 5) momentu taktiko operatiboa: antolaketa-teknikena. Momentuen sekuentzia sinpleenetik (1. momentua) konplexuenerakoa (5. momentua) da, eta, beraz, aurrez azaldutakoak aurrejartzen ditu.

Hitz lauz, Komuna, langile botere sozial gisa, esentzian iraultzailea dela defendatzen ahaleginduko naiz, baita bere garapena ere, forma politiko konplexu gisa.

TESTUINGURU HISTORIKOARI BURUZKO ZERTZELADAK

Parisko Komuna krisi ekonomikoak eta Frantziako Bigarren Inperioaren krisiak ezaugarritutako testuinguru historiko iskanbilatsu batean sortzen da. 1870ean Luis Bonapartek Luxenburgo hartzeko saiakera egiten du, Parisko masei hainbesteko gosea eragingo zien gerra franko-prusiarrari hasiera emanez. Bere armadaren gainbeherak eta horren eraginez Bigarren Inperioarenak, Hirugarren Errepublikari ireki zizkien ateak. Azken horrek 1871. urtearen hastapenetan amore eman zuen armada prusiarraren aurrean, eta Guillermo I Alemaniako enperadore izendatu zen Versallesen.

Proletariotza ez zegoen soilik gosez eta armaturik, dagoeneko klase borrokan zaildutako proletariotza zen, borroka tradizio handikoa eta berriki, 1848ko Ekaineko Jardunaldietan, burgesia txikiak traizionatua eta masakratua.

Horrenbestez, krisi ekonomikoari eta Estatua-ren krisi politikoari langile mugimenduaren krisia gehitu behar zaio, ezin baitzen burgesia txikiarekin egin zezakeen aliantza hipotetikoaz fidatu makineria burokratiko-militarra eskuratzeko.

PARISKO KOMUNA

1. Komunaren momentu materiala: emantzipazio soziala eta kontsentsua

Komunako momentu eratzaile sinplea *communards*-en borondate askatzailean datza. Subjektibitate horren eraketa aurreko atalean zehaztutako testuinguruaren elementuen bat-egiteak ahalbidetu zuen; baldintza historiko horiek borondate komunala kohesionatu zuten, bere boterearen sostengu nagusi gisa.

Filosofia politikoko sektore handi batentzat, boterea dominazioa da. Menderatzeko borondateak botere politikoa sostengatzen du harreman sozial modura. Alabaina, komuneroek ez zuten inor menperatu nahi; ez zuten boterea dominazio modura birproduzitu nahi, aitzitik, klase dominazioa bere forma guztietan abolitu nahi zuten. Hala azaltzen zuten Marxek:

Inperioaren antitesi zuzena Komuna zen. Osaileko iraultzari hasiera emateko Parisko proletariotzak oihukatu zuen «errepublika soziala» aldarriak ez zuten klase menderakuntzaren forma monarkikoarekin soilik amaituko zuten errepublika baten nahia adierazten, klase menderakuntzarekin amaituko zuten batena baizik. Komuna errepublika horren forma positiboa zen⁽¹⁾.

Botere politikoaren forma positiboak edo Parisen eratutako botere politiko positiboak bere oinarria Parisko proletariotzaren borondatean zuen, *maila gorenagoko bizi forma bat*⁽²⁾ antolatze borondatea, hain zuzen. Hori behin eta berriz azpimarratzen da *Guda Zibila Frantzian* dokumentuan, Lehenengo Internazionalaren balantzea dena.

Beraz, komuneroen subjektibitate iraultzailea ez zen determinatu gabeko borondate baten parekoa. Oroitu gaiten Komunan proudhonianoek, blankistek, Marxen eta Engelsen gertuko Lehen Internazionalako arduradunek eta abarrek hartzen zutela parte. Komuna politikoki askotarikoa zen. Hori dela eta, berau barreiatzen zuen subjektibitatea noranzko berdinean joatea adostu zuten borondate ezberdinen kontsentsuaren fruitu besterik ezin zitekeen izan. Bere izatea determinatu zuten baldintza historikoez gain, komuneroen artean egindako hitzarmen sozialaren ondorio zen Komuna: elkartze horretan zetzan bere boterearen funtsa. Izan ere, oroitu gaiten borondatea *erabakian* bilakatzen dela eraginkor, eta kontsentsuaren produktu dela hori. Zentzu horretan, emantzipazio soziala momentu arrazional eta kolektiboa izan zitekeen, Parisko proletariotzaren ekintza batasun gisa gorpuztua.

2. Lehen momentu instituzionala: botere soziala eta forma politikoa

Iradoki den bezala, borondatea *boterearen* bidez bakarrik gauzatzen da. Eta berehala kontsentsua *ezin da* gauzatu. Bitartekotzarik gabe, bitartekorik gabe, instituziorik gabe, ahalmenik gabekoa da borondatea; ez du errealitate bilakatzeko gaitasun edo indarrik.

Era berean, indarra ez da posible berau garatuko duten eta potentzia dauden gaitasunen antolaketazarik gabe. Burgesiaren indarrak (botere burgesak) balioaren legeak arautzen duen ekoizpen prozesu sozialaren antolaketan kapitalistan du iturburua; kontrara, proletariotzak indar sozial modura duen gaitasuna elkartasun diziplinatuan eta antolatuan datza. Botere burgesak euskarria merkantzia-formaren borondate egoistan eta subjektu juridiko forman du, aldiz, langile botereak lan-prozesuaren norabidetze eta kontrol etengabea du bere oinarria. Azkenik, botere burgesaren euskarria dirua bada, botere proletarioa masen elkartasun- eta emantzipazio-kontzientzia besterik ezin daiteke oinarritu.

Horrenbestez, Parisko masen irrika iraultzailea horren auto-antolakuntzaren bitartez soilik bilakatu zitekeen *eraginkorra*, momentu instituzionalera eregiz eta langile klasearen grin askatzaileek gidatutako *lan-prozesu serio* gisa antolatuz. Komuna ororen gainetik langile botere iraultzailea zen, lan-prozesu modura artikulatu zelako.

«Soldadak» egon izanak ezin du ezbaian jarri egitate hori. Ordezkariei ordaintzen zitzaizkien soldadak (udal zinegotziak, inspektoreak, kontulariak, hainbat motatako teknikariak...) ez ziren soldadak, hitzaren zentzu kapitalistan, egindako ekarpenari zegozkion ordainsariak⁽³⁾ baizik.

Egia da Komunak ez zituela dirua eta merkantzia balio-forma gisa ezabatu, eta ondorioz, ezta balioaren legea bera ere. Horiek Komunarekin *batera existitu* ziren. Haatik, ez zen balioaren legea Komunaren barne-gidalerro operatiboak agintzen zituena. Balioaren legea Komunarekin *batera existitu* zen, *kanpokotasun* sozial, kultural, ideologiko, politiko eta geografiko modura. Parisen egon bazegoen merkantzia, bazegoen dirua, bazegoen soldatapeko lana, kapitala industrial eta finantzarioa eta abar, baina horiek ez ziren Estatu Burgesean sintetizatzen. Asanblada Nazionalak ihes egin zuen, ez zegoen armadarik, ezta polizia ere botere judizialik ere. Eta Komuna aipaturiko kategoria sozial eta politiko horiei guztiei kontrajartzen zitzaie instituzio soziala zen, kategoria horiek gainditzeko eta deuseztatzeko ahalera zuena. Hori guztia posible zen Komuna *esentzian* balorizazio prozesuarekiko *ezberdina* zen *lan-prozesu bat* zelako.



Parisko masen irrika iraultzailea horren auto-antolakuntzaren bitartez soilik bilakatu zitekeen *eraginkorra*, momentu instituzionalera eregiz eta langile klasearen grin askatzaileek gidatutako *lan-prozesu serio* gisa antolatuz



Komunak ez zituen dirua eta merkantzia balio-forma gisa ezabatu, eta ondorioz, ezta balioaren legea bera ere. Horiek Komunarekin *batera existitu* ziren. Haatik, ez zen balioaren legea Komunaren barne-gidalerro operatiboak agintzen zituena

Baina, horrekin batera, Komunak erregimen burgesa gainditu zezakeen, lan-prozesu modura egin-behar politikoen banaketa bat baitzen.

Komunaren erregimenak ordura arte Estatu parasitoak irensten zituen indar guztiak itzuli zizkion organismo sozialari⁽⁴⁾.

Hau da, *komuneroen elkartasun antolatuak forma politikoa erdiestea galdegiten zuen etsaiari aurre egiteko eta bizirauteko. Bere egiteko politikoa aldi-bereko lan-prozesu legegilean eta exekutiboan zetzan.*

Komunak ez zuen organismo parlamentario bat izan behar, aldi bereko lan legegilearen eta exekutiboaren korporazio bat baizik.

Parisko proletariotza botere eraginkor modura eratzen hasia zen legegintza-lanetan, lehenago adierazi dudana moduan. Horrela, masen interesak islatzean, haiei eman zitzairen erabakiaren gaineko monopolioa, Parlamentutik Komunara lekualdatuta⁽⁵⁾. Handik aurrera, proletariotzak *erabakiko* du nola gauzatu bere emantzipazioa, eta helburu hori erdiesteko lan banaketa planifikatuko du.

Marxek modu honetan izendatzen du momentu hori: «azkenik aurkitutako forma politikoa *bere baitan* lanaren emantzipazio ekonomikoa gauzatze-ko»⁽⁶⁾. Komuna eginbehar politikoen plangintza eta banaketa bat zen; ez zuen klase borroka *de facto* ezabatzen, baina *bere bitartez*⁽⁷⁾ langileria klaseak deuseztatzen saiatzen zen: *medium arrazionala* zen honako hori⁽⁸⁾.


Komuna bere boterea erabiltzen hasten da etsaiarena suntsituz. Hots: *klase menperakuntzaren abolizioa abiatzen du, menperatuz*

Historikoki prozesu eratzaile hori osziladorea eta ez lineala izan zen. De Ville hotela, Komunaren zentro fisikoa, Parisko proletariotzak botere politikoaren auzia ebazteko aurre egin behar izan zion konplexutasun historikoaren lekuko izan zen. Guardia Nazionaleko Batzorde Zentralak eta Guardia Nazionalak berak, adibidez, instituzio modura lehen pausoak Komunaren aurretik eman zituzten. Hala ere, behin hauteskundeak eginda, «200.000 [proletario] miserable Hôtel de Ville-ra joan ziren haiek aukeratutako pertsonak han jartzera» eta Batzorde Zentralak bere botereak eman zizkion Komunari. Baina azalpen logikora itzuliz, testu honek ez du izaera konkretuagoa duten elementu horietan sakonduko.

Hala, orain arte esandakoa laburbilduz: Komuna Parisko proletariotzak *forma politikoarekin eratutako botere soziala* zen, horren baitan beronen borondate soziala gauzatzeko: lanaren emantzipazio ekonomikoa.

3. Ekintza estrategikoaren momentua: *Estatuaren suntsipena, diktadura iraultzailea*

Orain arte adierazitakotik ondorioztatu daitekeen modura, komuneroen instituzionalizazioa ez zetzan burgesiaren forma politikoa erreproduzitzean. Forma politiko ezberdin bat zen, adierazten zuen boterearekin koherentea zena. Horrexegatik, paradoxa dirudien arren, Komuna bere boterea erabiltzen hasten da etsaiarena suntsituz. Hots: *klase menperakuntzaren abolizioa abiatzen du, menperatuz*. Honako hau idatzi zuen Marxek:



Lanaren emantzipazioa hasten du –bere helburu nagusia–, Estatuaren bizkarroien lan ez-emankorra eta kaltegarria ezabatuz. Botere politikoa edukitzeko lehen baldintza da funtzionamendu-makineria eraldatzea eta suntsitzea, klasea menderatzeko tresna bat baita⁽⁹⁾.

Bestela esanda, lehenengo *exekutatz*en dituen zereginak (bere lehen lan exekutiboa) dira Estatu Burgesaren botere legegilea, exekutiboa eta judiziala suntsitzea:

- Indar armatuak deuseztatu ziren.
- Poliziari izaera politikoa kendu zitzaion.
- Burokrazia administratzailea gutxienez murriztu zen.
- Elizari jabetzak eta ezaugarri hezitzaileak kendu zitzaizkion.
- Magistraturari «antzeztutako independentzia» kendu zitzaion.
- Parlamentarismoa abolitu zen.

Beraz, estatu burgesaren suntsipena hartzen du («dagoen estatu-makina hautsi») bere boterea gauzatzeko lehen fase estrategikoa modura.

Aitzitik, hemen galdetzea merezi du: nola egiten da hori? Nola suntsitzen da Estatu? Nola gauzatu du bere boterea Komunak? Leninek zehaztasun gehiagorekin heltzen dio galderari eta galdera horren bidez ebazten du aurrekoa: *Nola igaro daiteke biztanleriaren gehiengoa, biztanleria osoa blokean, Estatuaren funtzioak gauzatzera?* ⁽¹⁰⁾

Komuna, sufragio unibertsal bidez hautaturiko udal kontseilarietz gain, batzorde delegatuek osatzen dute:

- Gerra Batzordea
- Ogasun Batzordea
- Justizia Batzordea
- Segurtasun Orokorreko Batzordea
- Lan eta Truke Batzordea
- Oinarritzko Beharren Batzordea
- Kanpo Harremanen Batzordea
- Zerbitzu Publikoen edo Udal Zerbitzuen Batzordea
- Irakaskuntza Batzordea
- Batzorde Exekutibo Iraunkorra

Batzorde horietaz gain, Komunaren garapenean, Guardia Nazionalaren Batzorde Zentralak operatibo jarraituko du Gerra Batzordearen barruan, Osasun Publikoko Batzorde batek Batzorde Exekutiboa ordezkatzeko du, Artilleria Batzorde bat egongo da eta aipatu gabe utzi ditudan beste zenbait zeuden; momentuko beharren arabera hautatu, kontraesanean jausi eta desegin zirenak.

Horrenbestez, honela ebazten da egindako gal-

dera: *Komunak bere boterea delegazio politikoei gauzatzen du, eta ez unean. Batzordeek ikusarazten duten bezala, momentu konplexuena bitartekotza instituzional bikoitza da: delegatuen armada boterea gauzatzeko mekanismo gisa. Hau da: instituzio komunalak instituzio delegatuak behar ditu Estatu suntsitu eta bere lehen fase estrategikoa edukiz betetzeko.*

4. Bigarren momentu instituzionala: botere delegatua edo armada delegatua

Instituzio delegatuek Komuna forma politiko modura osatzen dute. Hortaz, Estatuaren suntsipena edo proletariotzaren diktadura iraultzailearen ezarpena ez datza soilik armada iraunkorraren, Estatuaren segurtasun-indarren, Parlamentuaren, auzitegien, kartzeletako funtzionarioen eta abarren ezerezte fisikoan. Era berean, Komunak hasiera ematen dio bere diktadurari Estatu Burgesa *antolakuntzaren esparruan* suntsituz edo deuseztatuz:

- Bere eskumen politikoak indarrez lortzen ditu (edo botere hutsune bat betetzen du).
- Komunari txertatzen ditu.
- Antolakuntza bitartekotzekin gauzatzen ditu: instituzio delegatuekin.

Esan nahi baita, Komuna klase borrokan eratzen dela burgesiaren boterearen aurka. Honela azaltzen du Marxek:

Frantzia osoa auto-administratutako eta autogobernatutako (selfworking) Komunetan antolatuta [egongo zen], armada iraunkorra herri-miliziek ordezkatzeko zuten, Estatuko parasito armada deuseztatutako zen, hierarkia klerikalari eskolako maisuak kenduko zion tokia, Estatuko epailea organo komunaletan bihurtuko zen, ordezkariak nazionalarentzako sufragioa ez zen gobernu ahalguztidun batentzako eskujoko bat izango, Komuna antolatuen berariazko adierazpen bat baizik, eta Estatuaren funtzioak helburu nazional orokor batzuetarako funtzioetara murriztuko ziren⁽¹¹⁾.

Lissagarayk ordezkariak bakoitzaren eskuduntzak azaltzen ditu kronikan, eta Komunak horietako bakoitzarekin aurre egin behar izan zien zailtasunak azaltzen ditu. Zehaztu den legez, testuinguru belikoa zela-eta Komunak egin beharreko lanak, oro har, *politikoak* ziren; horren harira, Komunak bere gain hartutako funtzio *ekonomikoak* ezin izan zituen osotasunean garatu, batzordea eratzen zuten sozialista iraultzaileak etengabe saiatu ziren arren. Denbora faltak zeresan handia izan zuen. Lan Ba-

tzordeak soldaten gaineko atxikipenen abolizioa agindu zuen dekretuz, baita utzitako tailerrak berriskuratzeari ere, langileek administratu zituzaten; helburu gisa zituzten, besteak beste, «*egin daitezkeen erreformen ikerketa, izan Komunako zerbitzu publikoetan, langileen arteko harremanetan, emakume eta gizon artekoetan edota haien patroiekin zituztenetan; Merkataritza Kodearen eta aduana-tarifen berrikuspena; zerga zuzen eta zeharkako zerga guztien eraldaketa; eta lan-estatistika baten ezarpena*»⁽¹²⁾. Baina Engelsek 1891an baieztatu zuenez, blankismoa eta proudhonismoa sozialisten artean dotrina nagusiak izan izanak azaltzen du igorritako dekretuen izaera, Frantziako Bankuari buruzko polemika eta, oro har, gauzatzea beharrezkoa ziren zenbait aspektu ekonomiko alboratu izana⁽¹³⁾.

Azken finean, Komunaren helburua bizitza antolatzea zen, horren dimentsio guztietan, eta horrek (eginbehar politiko, legegile eta exekutiboetatik haraindi) zeregin industrialak (produktiboak) eta distributiboak bere egin eta garatzeko organo delegatuak sortzea exijitzen du.

5. Une operatibo-unitarioa: diktadura gauzatzeko teknikak

Labur esanda, orain arte, lanaren emantzipazioa gauzatzeko botere delegatuen bitartez Estatuaren makineria burokratiko militarra *hausten* duen instituzioa da Komuna.

Hala ere, arestian azaldu bezala, delegazioen eta Komunaren arteko tentsioa etengabea izan zen iraun zuen denbora guztian. Batzorde Zentralaren eta Komunaren arteko gatazkek argi adierazten digute hori.

Egoera horiei erantzuteko, botereen orekarako mekanismoak sortu zituen egitura komunalak, antolaketa-teknika forma zutenak, Komuna eta delegazioen arteko bereizketa-marjina murrizteko, alde batetik, eta Komunaren eta biztanleriaren artekoa murrizteko, bestetik.

(...) Komunak (...) biztanleriaren ordezkari bakarrak, arduradun bakarrak, momentu hartan botere guztiak xurgatu zituen eta ezin zuen onartu aurretik izandako paperaren nostalgia zuenik bere alboan⁽¹⁴⁾.

Osasun Publikoko Komitea etengabeko joan-etorri horien erakusle aproposa da; behin hilabete eta erdiko tartean izendatu ziren bi Batzorde Exekutiboek huts egin zutenean, organo delegatuen eta delegatuen gaineko kontrola sendotzeko sortu zen komite hori. Batzuek «botere indartsu bat»

eta «koldar eta traidoreak beldurtu» nahi zituzten; beste batzuek, berriz, aurka bozkatu zuten, batzordeen gainetik -eta, horrenbestez, Komunaren gainetik- ezartzen zen organo diktatorialtzat jotzen baitzuten. Osasun Publikoko Batzordeari eskumenak kendu zitzaizkionean ebatzi zen eztabaida, ezarri eta zortzi egunera, agerian utziz nork zuen autoritate subiranoa.

Azken buruan, organo horrek botere mekanismoen urruntze edo fetitxizazio joeren aurreko erantzun politiko bat besterik ez zuen adierazten. Udal ordezkariak eta batzordeetako delegatuak, organo delegatuak bezalaxe, interes partzialen instrumentalizazioaren objektu izan zitezkeen, honela, haien ardurapean zegoen interes orokorra eroraraziz.

Ez da alferrikakoa gogoan hartzea balioaren legeak ez duela soilik Estatuarekin funtzionatzen, funtzionalak zaizkion ohiturekin, zentzu komunalarekin eta bestelako mekanismo ideologiko eta kulturalarekin ere egiten du. Horren erauzketak, beraz, mendeak iraun ditzakeen iraultza kultural iraunkor bat behar du. Horrenbestez, interes komunalen hegemonia mantendu eta edozein zeregin delegaturen erabilera egoistaren gainetik jartzeko erreminta nagusiak sufragio unibertsala eta antolakuntza-zentralismoa ziren. Kapitalaren forma ideologikoez, kulturalak eta politikoez ezin zuten egitura komunala zeharkatu, eta neutralizatu egin behar ziren. Horretarako balio zuten tresna horiek: barne-mailako funtzionamendu *benetan demokratikoa*⁽¹⁵⁾ bermatzeko eta kanpo erasoak neurri diktatorialekin blokeatzeko, modu ziklikoan proletariotzaren interesak erdigunean jarritz.

Komuna sufragio unibertsal bidez hautatutako delegatu komunalez zegoen osatua (...) arduradunak eta uneoro ezeztagarriak zirenak⁽¹⁶⁾.

Hautatutako bakoitza interes orokorraren eroale zen, eta horri erantzun behar bere egitekoak. Zeregin bat egiteko eta boterea gauzatzeko hautatzen zen oro, arduraduna zen eta etengabe ken zitekeen kargutik.

Delegatuak, organo instituzionalak, batzordeak, komiteak, hots, *botere delegatua, forma politikodun masek eratutako botere sozialaren etengabeko gainbegiratzearen bidez kontrolatzen zen*: Komunaren bidez. Zentzu horretan, Osasun Publikoko Batzordearen esperientzia adierazgarria da oso.

Finean, Komunaren boterearen eta horren botere delegatuen bereizketa *korruptzioaren momentua* izango litzateke. Zatiak ez luke osotasuna islatuko, masen borondatean zegoen boterearen oinarria al-

derantzikatuko litzateke eta edozein instituzio delegaturen borondate partziala gauzatuko litzateke, boterearen gauzaren despotikoa eraginez. Honela dio Marxek:

Langile klaseak badaki klase borrokako fase ezberdinak gainditu behar dituela berak. Badaki lanaren esklabotzaren baldintza ekonomikoak lan aske eta bazkidearen baldintzengatik aldatzea denboraren egintza progresiboa dela (...) badakite birsorkuntza lan hori ezarritako interesen eta klase berekoikerien erresistentziak moteldu eta galaraziko dutela⁽¹⁷⁾.

Komunak ariketa egolatra eta despotiko hori den gaitzaren aurka borrokatu behar izan zuen, boterearen etekin propiora begira erabiltzearen aurka. Diktadura iraultzailea, beraz, botere sozial eratuaren eta haren armada delegatuaren batasunaren ondorioa bakarrik izan zitekeen; boterea interes orokorra-

ren gidalerro exekutiboen (aginduzko manamendua) subordinazioaren fruitu izanda zen iraultzailea; boterearen gauzatzea iraultzailea zen baldin eta diziplinatua eta esanekoa bazen (Dusselek dixit). Premisa hori gabe, posible ziren korrupzioa eta totalitarismoa eta, horregatik, forma politikoaren osagai guztien batasun politikoa azaldutako teknologien bidez soldatzen zen.

Azken finean, klase independentziaren mantenturako instrumentuez dihardugu, antolakuntzaren alorrekoaz, espezifikoki. Honela, artikulatutako osotasun sozialaren boterearen organo exekutiboen bereizketak, osotasunaren eta atalaren arteko bereizketak, edo harago, atalak osotasunaren gaineko gailentasuna izateak, dominazio harremanak adierazten ditu, bere burua iraultzailatzat izendatzen duen instituzio batean materializatzen badira ere.

Komunaren helburua bizitza antolatzea zen, horren dimentsio guztietan, eta horrek (eginbehar politiko, lege-gile eta exekutiboetatik haraindi) zeregin industrialak (produktiboak) eta distributiboak bere egin eta garatzeko organo delegatuak sortzea exijitzen du




***Diktadura iraultzailea,
beraz, botere sozial
eratuaren eta haren
armada delegatuaren
batasunaren ondorioa
bakarrik izan zitekeen;
boterea interes
orokorraren gidalerro
exekutiboen (aginduzko
manamendua)
subordinazioaren fruitu
izanda zen iraultzailea;
boterearen gauzatzea
iraultzailea zen baldin
eta diziplinatua eta
esanekoa bazen***

ONDORIOAK

Subjektibitate iraultzailearen auzia landu dugu, bere sorleku den oinarrian sakondu gabe; Komunak botere sozial gisa eta lan-indar solidarioaren planifikazio gisa zuen bizitasuna adierazi dugu; eta azkenik, botere horren forma politikoan sakondu dugu, instituzio delegatuen bidez bere gain hartu eta gauzatzen dituen zeregin politikoak nabarmenduz, horrela estatu burgesa suntsitzen baitu eta bera fetitxe ez bihurtzeko antolakuntza-mekanismoak errazten baititu.

Diktadura/demokrazia binomioan ez dugu sakondu; ezta lan-prozesu berriaren diziplina sozialistan ere. Elementu asko utzi dira baztertuta eta landu gabe analisi honetan. Azaletik, proletariotzairen diktadura iraultzailearen momentu eratzaileei buruz hitz egin dugu, Parisko historia garaikidean adierazi zena lehenengoz. Ildo beretik, diktadurari buruzko kontzeptu bat azaltzen saiatu naiz, Leninek 1919an ezin hobe laburbildu zuena honako honetaz ohartaraztean: «Proletariotzairen diktadura ez da esplotatzaileen gaineko biolentzia soila, areago, izatez ez da nagusiki biolentzia. Biolentzia iraultzaile horren oinarri ekonomikoa, bere bizitasunaren eta arrakasta-





***Proletariotzaren diktadura
ez da esplotatzaileen gaineko
biolentzia soil, areago, izatez
ez da nagusiki biolentzia.
Biolentzia iraultzaile
horren oinarri ekonomikoa,
bere bizitasunaren eta
arrakastaren bermea,
zera da: proletariotzak,
kapitalismoaren aldean,
lanaren antolakuntza
sozialaren mota jasoago bat
ordezkatzeko eta praktikan
jartzen du. Hori da
funtsezkoena. Bertan baitaude
errotuta komunismoaren
indar eta ezinbesteko garaipen
osoaren bermea***

V. I. U. LENIN

ren bermea, zera da: proletariotzak, kapitalismoaren aldean, lanaren antolakuntza sozialaren mota jasoago bat ordezkatzeko eta praktikan jartzen du. Hori da funtsezkoena. Bertan baitaude errotuta komunismoaren indar eta ezinbesteko garaipen osoaren bermea»⁽¹⁸⁾.

Mugimendu Sozialistak ikasbideak atera behar ditu esperientzia garrantzitsu horretatik; garaipenak metatu eta akatsetatik ikasi behar du, antolakuntza sintetizatu eta lan militante eredu berri batean aurrerapausoak eman. Forma politikodun proletariotzaren botere sozialaren eraikitze progresiboa sortzen ari diren organismo xumeen bidez soilik da posible; kritika elikatuz, militantzia diskretuaren, zintzoaren eta serioaren apologia eginez, bide berriak hasteko beldurrik izango ez duena eta etengabe zuzenduko dena. Komuneroek eta beste milaka sozialista iraultzailek modu desinteresatuan egin zuten bide berbera da, baita Euskal Herrian ere. Programa komunista berraktibatzeke helburuarekin egingo dugun bidea, gizarteak behingoz eta betiko giza-aurrehistoriaren bidexka korritu dezan. /

OHARRAK

- 1** Ferreiro, R. (2005) *Extractos de los Borradores de La Guerra Civil en Francia*. Boletín Ígneo, nº 5
- 2** Marx, K. (1871) *La Guerra Civil en Francia*. Madrid, Fundación Federico Engels, p. 73
- 3** Lenin, V.I. (1917) *El Estado y la Revolución*. España: Alianza editorial, p. 101
- 4** Marx, K. (1871) *La Guerra Civil en Francia*. Madrid, Fundación Federico Engels, p. 70
- 5** Salvadori M.L., Magri, L., Foa, L. (1977) *Vía parlamentaria o vía consejista*. Barcelona, Editorial Anagrama, p.43
- 6** Marx, K. (1871) *La Guerra Civil en Francia*. Madrid, Fundación Federico Engels, p. 71
- 7** Ferreiro, R. (2005) *Extractos de los Borradores de La Guerra Civil en Francia*. Boletín Ígneo, nº 5
- 8** *Ibíd.*
- 9** Ferreiro, R. (2005) *Extractos de los Borradores de La Guerra Civil en Francia*. Boletín Ígneo, nº 5
- 10** Lenin, V.I. (1917) *El Estado y la Revolución*. España: Alianza editorial, p.93
- 11** Ferreiro, R. (2005) *Extractos de los Borradores de La Guerra Civil en Francia*. Boletín Ígneo, nº 5
- 12** Lissagaray, H.P.O. (1876) *Historia de la Comuna de París*. Barcelona, Editorial Estela, 1971 p. 98
- 13** Marx, K. (1871) *La Guerra Civil en Francia*. Madrid, Fundación Federico Engels, p. 18
- 14** Lissagaray, H.P.O. (1876) *Historia de la Comuna de París*. Barcelona, Editorial Estela, 1971 p. 71
- 15** Marx, K. (1871) *La Guerra Civil en Francia*. Madrid, Fundación Federico Engels, p. 71
- 16** *Ibíd.*, p. 67
- 17** Ferreiro, R. (2005) *Extractos de los Borradores de La Guerra Civil en Francia*. Boletín Ígneo, nº 5
- 18** Balibar, E. (1977) *Sobre la dictadura del proletariado*. Madrid, Siglo XXI España Editores, p.242

KOLABORAZIOA

KRISIA, 'BREXIT'-A ETA FUNTS EUROPARRAK

Testua
Irudia

Eneko Carrión
Lander Moreno Lizarraga





DIMENTSIO ANITZEKO EUROPAKO BLOKEAREN KRISIA

Lehenago argitaratu nuen erreportajea, gure garaiko potentzia handienak, Txina eta AEBen, arteko borrokak eta aldaketa nagusiak aztertu nituen. Bertan, gatazka horren garrantzia azpimarratzeaz gainera, azken horrek bizi duen egoera zaila jarri nuen mahai gainean. Erreportaje honek aldaketa geopolitikoek Europako blokean dituzten eraginak aztertzea du asmo, baita epe laburrean datozenak ere: azpimarra berezia egingo diet Europako funtsei. Agidanez, Europak bizi duen krisia, koiunturala izatetik urrun, azken hamarkadan azaleratzen joan den krisiaren jarraipena baino ez da: 2008ko krisiak eta COVID-19aren agerpenak bizitu baino ez dute egin gainbehera. Europa egun pairatzen ari den krisiak hainbat eta hainbat dimentsio ditu; horietatik guztietatik, egungo erronka politikoetarako garrantzitsuenak iruditzen zaizkidanak aztertuko ditut jarraian.

Ekonomia

Etengabe hazten ari ziren Asiako ekonomiekin eta AEBekin lehiatzeko gai izango zen bloke geopolitikoaren sorrera; horixe zen Europar Batasunaren izatearen funtsa. Batasunaren bultzatzaileek uste zuten merkantzien mugimendu askea eta txanponaren bateratzea Europako herrialde ahulenen lehia gaitasuna areagotzeko giltzarri izango zirela, ardatz frantziar-alemaniarra gidari hartuta. 2008ko krisiarekin, baina, zapuztu egin zen bide-orri hori: krisi ekonomikoak agerian utzi zituen Europar Batasunaren proiektuaren ahuleziak. Austeritate neurrien ezarpenak ondorengo helburuak zituen: errenta-

garritasuna berreskuratu nahi zuten; azken horren bitartez, inbertsioak areagotu nahi zituzten; eta, finen, ekonomia berrabiarazi nahi zuten. Horregatik guztiagatik, soldaten parte-hartzea murrizteko neurriak ezarri zituzten, pribatizazio eta murrizketekin batera. Haatik, neurri horiek ez dute aurretik zegoen egoera kaskarrak okerrera egitea besterik lortu ^[1]. Gainera, COVID-19 birusaren agerpenak are gehiago ilundu du aurretik ere makurra zen egoera: munduko potentzia handienak kinka larrian jarri ditu koronabirusaren krisiak (ikus taula).

Adierazgarria da, oraindik ere, Europar Batasuna mundu mailako balio-kateetan integratuen dagoen lurraldea izatea; are gehiago, azken horren parte-hartzea azken urteetan gehien murriztu dena izanik. Joera hori, gainera, apaltzetik urrun, areagotu egin da 2019tik ^[2]: hori da balio-kateen egitura-

Adierazgarria da, oraindik ere, Europar Batasuna mundu mailako balio-kateetan integratuen dagoen lurraldea izatea; are gehiago, azken horren parte-hartzea azken urteetan gehien murriztu dena izanik. Joera hori, gainera, apaltzetik urrun, areagotu egin da 2019tik



ELGA-REN 2021EKO ETA 2022KO BPG-AREN AURREIKUSPENAK, HERRIALDEKA

Iturria | ELGA
Errealizazioa | Arteka

	2020 (%)	2021 (%)	2022 (%)
India	-7,4	12,6	5,4
Txina	2,3	7,8	4,9
Estatu Batuak	-3,5	6,5	4
G-20	-3,2	6,2	4,1
Frantzia	-8,2	5,9	3,8
Turkia	1,8	5,9	3
Espainia	-11	5,7	4,8
Mundua	-3,4	5,6	4
Erresuma Batua	-9,9	5,1	4,7
Indonesia	-2,1	4,9	5,4

keta mundu mailan jasaten ari den birmoldaketaren gakoak, eta ezin uler daiteke Txinaren eta AEBen arteko lehia aztertu gabe.

Osasungintza

Datuak esku artean, ez dago zalantzarako tarterik: pandemiaren kudeaketa erabateko porrota izan da. Europan, apirilaren 9ra arte, 47.042.79 pertsona kutsatu dira, eta horietatik 998.025 hil egin dira ^[3].

Are gehiago, Txinako eta Hego Koreako datuek agerian uzten dute Europako gobernuburuaren gaitasun eza: azken bi herrialde horietan heriotza kopuruak 4.636 eta 1.726 izan dira, hurrenez hurren ^[4]. Bistan da herrialde gehienek hartu dituzten arintze neurriek eraginkortasunik ez dutela: osasungintza-aren eta ekonomiaren arteko dikotomia ez da erreala.

Era berean, iraingarria da txertoaren auzia: martxoak 30 dituen honetan, munduko biztanleen % 4,2k baino ez du jaso txertoa ^[5]. Agidanez, historian ekoizpen gaitasun handienak dituen sistema izanagatik ere, sistema kapitalista ez da gai antolatu eta osasun-krisiari aurre egiteko: merkatu kapitalistaren zentzugabetasuna larrugorritan ageri zaigu. Osasuna gizarte gisara lortu asmo dugun helburu nagusia izan ez, eta merkantzia huts bilakatu da: sozialismoa irudikatu eta berau lortzeko ordua iritsi da.

Migrazioa

Europak bizi duen krisiaren beste adierazleetako bat migrazioaren gaiari dagokiona da. Esku-hartze inperialistek eta garapen desorekatuak Europaranzko migrazio-fluxu handiak eragin dituzte. Ezbairik gabe, migrazioa herrialdeen kudeaketarako eta, orobat, Batasunaren beraren jardunerako erronka handia bihurtu da. Milaka pertsona hil dira itsasoa, Europan bidean zirela: hainbat eta hainbat

**Datuak esku artean,
ez dago zalantzarako
tarterik: pandemiaren
kudeaketa erabateko
porrota izan da.
Europan, apirilaren
9ra arte, 47.042.79
pertsona kutsatu dira,
eta horietatik 998.025 hil
egin dira**



migratzaile deportatu dituzte Europako lurretatik; errefuxiatu kanpamentuak leporaino beteta daude: eta, migrazio-politikek biolentzia kapitalistaren aurpegirik gordinena erakusten digute. Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordearen datuen arabera, 2019an, gutxienez, 1.318 pertsona hil dira Mediterraneo itsasoan. Hala, aurreikuspenen arabera, XXI. mendea hasi zenetik, 40.000 pertsona hil dira, Europara heldu nahian, itota ^[6]. Beraz, datu horiek kontuan hartuta, Mediterraneokoa da munduko migrazio-pasabiderik hilkorrena, lorpen handia bere burua askatasunaren bermetzat duen horrentzat.

Politika

Batetik, Europako instituzioen ezintasunak, gainera, mesfidantza eta bazterketa sortu ditu; horrek Europar Batasunaren aurkako mugimenduen sorrera eta zabalkundea eragin ditu, gainera. Nagusiki faxistak dira mugimendu horiek, dela Urrezko Egunsentia Grezian, dela Askatasunaren Alderdia Austrian, dela Suediar Demokratak Suedian, dela Fronte Nazionala Frantzian, dela Iparraldeko Liga Italian, dela Alemaniarentzat Alternatiba Alemanian, eta abar: Europar Batasunaren proiektuaren ezintasunek mugimendu faxistak indartu dituzte.

Bestetik, migrazioak barne zatiketak eragin ditu, nagusiki, kuota bidezko asilo-eskaeren banaketa mekanismorako desadostasunak eraginda. Visegradoko taldeak behin eta berriro agertu du errefuxiatuen aurkako jarrera baztertzailerik eta oztopatzailerik ^[7]. Talde hori Eslovakiak, Poloniak, Hungariak eta Txekiar Errepublikak osatzen dute, eta guztien artean 65 miloi biztanle dituzte.

Azkenik, krisi ekonomikoak arriskuan jarri du oligarkiak Europarentzat duen proiektuaren eraginkortasuna; eta, Europako instituzio antidemokratikoen gaitasun ezak baieztapen hori indartu du (Europako Banku Zentrala, Europar Kontseilua, Europako Batzordea...). Horrenbestez, *Brexit*-a Europaren gainbeheraren adierazle azalekoena baino ez da.

'BREXIT'-A

Erresuma Batuak Batasunetik alde egin izana, azken horren historiaren gertakari garrantzitsuenetako bat da, ezbairik gabe. Akordioz eta negoziazioz betetako lau urte eta gero, herrialdearen banaketa hezurramitu egin zen 2020ko abenduaren 31n. Eragin ekonomikoaz harago —bi aldeak albo-kaltea ahalik eta txikiena izan zedin ahalegindu badira ere—, Erresuma Batua bezalako kide batek proiektua uztearen pisu politikoa kolpe gogorra da proiektuarentzat.


Izan ere, herrialdearen papera berebizikoa izan da defentsa auziei dagokienean: Boris Jhonsonek zuzendutako herrialdearen gastu militarra Batasuneko herrialdeen batez bestekoa baino handiagoa da; hirukote nuklearraren jabe da (lurreko misilak bonbaketari estrategikoei garraiatutako jaurtigaiak eta itsaspeko nuklearrak garraiatutako SLBM motako suziria); eta, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan partaidetza iraunkorra dauka. Beraz, herrialde anglosaxoiaren irteera aurrekari arriskutsua da, harik eta Europar Batasuneko herrialde gehiagok bide bera hartzeko arrazoirik ez duten arte ^[8]. Jarraian ikus dezakezen denbora-lerroak Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko harreman tirabiratsuen garapena erakusten du.

Banaketa gorpuztu bada ere, mantendu egin dira hainbat alderdi, esaterako, Europar Batasuneko barne merkatuaren muga-zergarik gabeko araubidea. Ezin egin zitekeen bestelakorik, izan ere, Batasuneko herrialdeek duten elkarrenganako menpekotasuna haustezina da: ondasun industrial britaniarren % 57k ezin aurki dezakete merkatuak Batasunean baino; horrez gain, finantza-zerbitzuen esportazioek, Londresko City-aren gidaritzapean, 60.000 milioi libera ematen dituzte, hau da, finantza esportazioen % 43 Europar Batasunera doaz. Azken hori da negoziazio prozesuaren funtsezko elementuetako bat, eta alderdi asko ditu aztertzeke. Erresuma Batua ekonomia «errentaduna» da, eta finantza- eta industria-zerbitzuen mende dago (BPGren % 7 dira); sektore hori manufaktura sektorea baino askoz astunagoa da ^[8].

Dena dela, lan-indarrari eta mugikortasunari dagokienean, ezingo dira askatasun osoz mugitu kontinentean barrena: izan ere, zenbait izapide burokratiko beharko dituzte. Ezinbestean, mugikortasun mugek eragina izan dute migrazio garbian; hori dela eta, murriztu egin da migratzaileek Estatuko diru-kutxetan egindako ekarpena. Halabeharrez, ondorio zuzena izan du horrek pentsio-sisteman eta gainerako gizarte-zerbitzuetan.

COVID-19ak gogor kolpatu badu ere, Erresuma Batuaren (127.078 hildako apirilaren 4ra arte) txertaketa-politika Batasuneko herrialdeena baino eraginkorragoa izaten ari da (36.904.755 txertaketa apirilaren 6ra arte). Boris Jhonsonen gobernuaren esfortzua erakusten du horrek ^[5].


Erresuma Batuak etorkizun lausoa du aurretik: hazkunde ahula du haren ekonomiak, eta ekoizpen gaitasun makurra erakutsi du, baldin eta 90eko hamarkadako herrialdearen joera edo Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeko beste herrialde batzuekin alderatzen badugu. Hala ere,



**Beraz, datu horiek kontuan hartuta,
Mediterraneokoa da munduko migrazio-
pasabiderik hilkorrena, lorpen handia
bere burua askatasunaren bermetzat
duen horrentzat**



**Eragin ekonomikoaz
harago –bi aldeak
albo-kaltea ahalik eta
txikiena izan zedin
ahalegindu badira
ere–, Erresuma Batua
bezalako kide batek
proiektua uztearen pisu
politikoa kolpe gogorra
da proiektuarentzat**



badu alde positiborik ere; izan ere, irteerari esker, munduko aldaketa geopolitikoaren barruan beste modu batera pentsatzeko eta ezartzen saiatzeko aukera du.

EUROPAKO FUNTSAK HERRIALDEAK LAGUNTZEKO

Testuinguru nahasi horren erdian, harrotasunez aurkeztu ditu Batasunak Europako aberriaren us-tezko salbatzaileak: mundu osoan ezagun egin dira Europako funtsak. Horiei buruz asko hitz egin arren, Europako, Espainiako eta Frantziako erakun-deen gardentasun eta informazio faltak mugatu egin du horiek xehetasunez eta sakontasunez aztertze-ko aukera. Azpimarratu behar da funts horiek oraindik ez direla existitzen, oraindik ez baita horiek lortze-ko sistemarik ezarri, eta, beraz, Europako Batzor-deak ezin du kapital-merkatuetara jo. Baina, hala eta guztiz ere, inbertsio-planak azaleratzen hasi dira hainbat sektoretan ^[9]. Horien garrantzia poli-tikoa eztabaida ezina da, eta, beraz, eskura dugun informazioa aztertzen jarraitu behar dugu, jarrera politiko egokia ezartze aldera.

Datu zehatzagoen faltan, erreportaje honetan erabiliko diren zifra asko ez dira guztiz zehatzak, eta, beraz, gutxi gorabehera ulertu behar dira. Eu-

ropar Batasunak dituen funtsen eta mekanismoen aniztasunak nahasmen ugari eragiten ditu; ho-ri dela eta, zehaztu behar dut aipatu nahi ditudan funtsak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanis-moak (MRR) ezarritakoak direla. Funts horiek es-tatu kideentzako diru-laguntzak eta maileguak dira (672.500 milioi euroko ekarpenak eta 47.500 milioi euroko diru-laguntzak Europa Berreskuratze-ko eta Lurraldeak Berreskuratze-ko Laguntzarako). Horiek dira *Next Generation EB (2021-2026)* izenekoaren partida nagusiak: 750.000 milioi euro inguru ^[9].

Espainiako Estatuak, hasiera batean, 140.000 milioi euro jasoko ditu, eta horien helburuak gober-nuak aurkeztu zuen planean jasota daude: *Espai-niak ahal du. Eraberritze, Eraldaketa eta Erresilen-tzia plana*. 140.000 milioi euro horietatik, 100 milioi itzuli beharko ditu; ezinbestean, horrek zorraren arazoa areagotuko du, dagoeneko kezkarria dena.

Espainiak ahal du planak ondorengo lau oina-riak ditu ^[10]:

- Espainia Berdea
- Espainia Digitala
- Genero-arrakalarik gabeko Espainia
- Espainia bateratu eta inklusiboa

Bestalde, palanka-politikak ditugu, hazkunde ja-sangarria eta inklusiboa lortzeko egiturazko erre-



formak egitea helburu dutenak. Zerrenda honetan ondorengo hamar puntuak eta lortu nahi diren funtsen ehunekoak daude:

1. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren aurkako borroka (% 16)
2. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak (% 12,2)
3. Trantsizio-energetiko justua eta inklusiboa (% 8,9)
4. XXI. menderako administrazioa (% 5)
5. Industria-ehuna eta ETEa modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa berreskuratzea eta Espainia Nazio Ekintzailea bultzatzea (% 17,1)
6. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna; Osasun Sistema Nazionalaren gaitasuna indartzea (% 16,5)
7. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena (% 17,6)
8. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak (% 5,7)
9. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea (% 1,1)
10. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde jasangarri eta inklusiborako

Hamar puntu horiek agerian uzten dute Espainiako Estatuan kapitalismoak berebizikoa duen

modernizazioa. *Green New Deal* delakoan, pisu berezia hartu dute inbertsioek; hain zuzen ere, azpiegituren hobekuntza beharrek, ehun-industrialaren digitalizaziorako premiak, ikerketa eta garapena helburu duten inbertsioek, eta lan-indarraren osaketan beharrezkoak diren aldaketek.

Aseak gosea ezin ikus, euskal burgesiak *Euskadi Next Plan*-etik bere zatia eskuratzeko asmoa du; hain zuzen ere, 5.702 milioi euro datozen bost urteetan ^[11]. Planak ondorengo arloak lehenesten ditu, besteak beste: industria, garraioa, eraikuntza, berrikuntza, digitalizazioa eta energia. Horiek guztiek funtsen % 65 osatzen dute. Gainontzean, osasungintzari eta zaintzari % 13 dagokie; hezkuntzak % 2,4 hartzen du; eta, azkenik, ekonomia zirkularrean % 9ko inbertsioa eragingo du.

Eman asmo dioten itxura sozialetik urrun, funtsak ez dira enpresa estrategikoak laguntzeko eta sostengatzeko erreskate korporatiboa baino, horien lehiakortasuna hobetzeko. Ezin eror gaitezke, beraz, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia faltsuan: biak ere Kapitalaren erreprodukzioan ezinbesteko zutabeak dira. Inbertsioak egingo dira hainbat sektoretan, hala nola: azpiegiturretan, berrikuntzan edo nazioartekotzean; baina kontsumo-gaitasun murriztua sustatzea ere bilatzen dute,

Sozialdemokraziak ez du ordena sozial kapitalista legitimatu besterik egiten, ez dute langile klaseko masa zabalei eskaintzeko ezer, hala, zinez iraultzaileak izan litezkeen mugimenduen garapena ekidin dute

Desadostasun taktikoez harago, ELA eta EAO oraindik ere ez dira kapitalismoaren logika sistematikoa zalantzan jartzen ari. Hala, onartu eta bultzatu egin dute instituzio burgesen ustezko neutraltasuna, beraz, sozialistoi baten zein bestearen planteamendu politikoa aho bizarrik gabe kritikatzeari dagokigu

bizitzeko gutxieneko diru-sarrera bezalako apus-tuen bidez.

Ezin ahaztu genezake diru hori ez dela musu-truk; funts guztiak araudia betetzera behar-tuta daude, baita Europar Batasunaren urteroko gomendioei jaramon egitera ere (Seihileko Europarra bezala ezagutzen dena). Azken horren ordainketa jasotzeko beharrezkoa da Europako Batzordeak eta Europako Kontseiluak herrialdeen planak onartzea. Gauzak horrela, funtsen esleipena ez da unean uneko-koa izango; aitzitik, 2026ko abuztuaren 31ra arte iraungo du (gehienezko epea da plana gauza dadin). Baldintzak askotarikoak dira, baina bi taldetan bil ditzakegu; lehenengoak zor publikoaren bolumen handiari egiten dio erreferentzia (kontinental, estatukoa eta autonomikoa), eta noizbait ordaindu egin behar da. Bestalde, «gomendioak» izango genituzke, Espainiako Estatuaren kasuan lan-erreforma ez indargabetzea, lan-baldintzak eta gutxieneko sol-data hobetzea eta pentsio-sistema erreformatzeko beharra barne hartzen dituzte ^[12].

Funtsak direla-eta hartu diren posizio politikoa

Funts horien garrantzia dela-eta, alderdi eta sindikatu guztiek egungo testuinguruan komenigarriena zaien posizio politikoa hartu dute, presaz. ELAren eta Ezker Abertzale Ofizialistaren artean sortutako tirabirak agerian utzi ditu hainbat eta hainbat eztabaida interesgarri, besteak beste: kapitalismoaren joera eta modernizazioa, eta Europar

Batasunarekiko eduki beharreko politika. Behinik behin, nabariak dira biek ere azaleratu dituzten gabeziak: agerian geratu da egungo ezkerrearen desorientazio ideologikoa. *Gara* egunkariak argitaratutako Larraitx Ugarteren (EH Bildu) esanak argigarriak dira ^[13]: «Europar Batasunak markatu dituen lehentasunak bateragarriak dira edozein ezkerreko indarren helburuekin». Batak zein besteak sistema modernizatzeko nahia eta borondatea partekatzen dituzte: sistemaren trantsizio ekologiko eta soziala dute aldarri. Hau da, ez daukate inolako asmorik sistema kapitalista gainditzeko eta sozialismoaren eraikuntzaren aldeko apusturik egiteko (aurretik ere nahiko argi zeuden asmo horiek).

Ezkerreko alderdiek, gehienek behintzat, funts horiek onartu dituzte, izan ere, alderdi horietako askok Europar Batasuneko Parlamentuaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregela-mendua onartu dute. Aldeko 582 boto jasota onartu zen ekimena; 40 izan ziren aurkako botoak eta 69 abstentzioak. *The Left* taldea osatzen duten ezkerreko alderdietako askok azken horren aldeko apustua egin zuten: abstenitu egin ziren taldea osatzen duten 39 alderdietatik 21, tartean, EH Bildu. Bestalde, soilik alderdi horietako batek bozkatu zuen ekimenaren aurka eta hamabostek aldeko botoa eman zuten, tartean, IU eta Podemos. Beste adibide bat litzateke EH Bilduk Espainiako Estatuko funtsak arautzen dituen Errege Lege Dekretuaren alde bozkatu izana ^[9]. Sozialdemokraziak ez du ordena sozial kapitalista legitimatu besterik egiten, ez dute

langile klaseko masa zabalei eskaintzeko ezer, hala, zinez iraultzaileak izan litezkeen mugimenduen garapena ekidin dute.

Sortuk eredu sozioekonomiko postneoliberalaren indartzeko borroka kulturala zabaltzeko une ezin hobe delako uste badu, ELAk funts horiek arbuia-tzen ditu, logika neoliberalaren aurkako kritikaren aldeko posizioa hartu duelako. Hala, sindikatuak jabetza publikoa eta kudeaketa soziala lehenetsi ditu^{[14][15]}. Pello Otxandianok (Sortu) une keynesiar baten atarian gaudenaren ideia onartu du: hau da, Europako instituzioen logika neoliberalaren aldatuko dela uste du, borroka sozialaren bidez tinkatua. Keynesianismoaren eta neoliberalismoaren arteko dikotomiak ez du uzten argi ikus dadin bizi dugun aldaketa egoera nabaria, dela estatuaren edo estatuaren gaindikotinatzen funtzioan, dela metaketa berrabiarazteko ekoizpenaren modernizazio saiakeran.

Nire ustez, Ezker Abertzale Ofizialistak funts horiek onartu izanak ez du nolanahiko instituzioetan Kapitalaren kudeatzaile izateko duen nahia berretsi besterik egiten, hasi instituzio autonomikoetatik, eta Espainiako eta Europako instituzioetara. Desadostasun taktikoez harago, ELA eta EAO oraindik ere ez dira kapitalismoaren logika sistematikoa zalantzan jartzen ari. Hala, onartu eta bultzatu egin dute instituzio burgesen ustezko neutraltasuna, beraz, sozialistoi baten zein bestearen planteamendu politikoa aho bazarrik gabe kritikatzeko dagokigu.

ONDORIOAK

Europako blokearen aldaketen garrantzia eztabaida ezina da; joera ekonomikoak eta geopolitikoak aztertzen jarraitu behar dugu, gure analisiak hobetzeko, eta egungo indar-korrelazioa hobetzeko gure gaitasunak non zentratu jakiteko. Europako blokearen gainbehera errealitate bat da, baina, hala ere, ezin dugu hiltzat jo. Ez dugu berriro sistema horrek dituen aldaketarako eta egokitzapenerako gaitasunak gutxieteko akatsean erori behar.

Europako funtsak elementu nagusietako bat izango dira datozen hilabeteetan, eta, beraz, gai izan behar dugu printzipio sozialistekin koherentea den jarrera bat ezartzeko. Zentzu horretan, ezin dugu ezker koldar hori guztia seinalatu eta kritikatu gabe utzi, ordena esplotatzaile eta zapaltzaile hori iraunarazi besterik ez baitu egiten. Aurrean dugun krisia erronka bat da, baina baita aukera bat ere, langile klase zabalak politizatzeke, bere haragitan biziko baitu ordena sozial horren aurpegiak kruzdelena. Aurrean ditugun erronken mailan egotea dagokigu. /

ERREFERENTZIAK

- 1 Roberts, M. (2016). *La larga depresión*. Barcelona, Viejo Topo.
- 2 Herrero, A & Junyu, T (2020) *Deglobalisation in the context of United States-China decoupling*.
- 3 OCDE (2021)
- 4 Statista (2021)
- 5 Our World in data (2021)
- 6 *INFORME 2019: Las personas refugiadas en España y Europa*. CEAR.
- 7 El grupo de Visegrado. El Orden Mundial.
- 8 Roberts, M (2020). *The brexit deal*. thenextrecession.wordpress.com
- 9 Rodríguez, A (2021). *Bienvenido Mr Marshall*. vientosur.info
- 10 *España puede. Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (2021)*. lamoncloa.gob.es
- 11 *Euskadi Next 2021-2026*. Eusko Jaurlaritz. euskadi.eus
- 12 Fernández, G (2021). *6 mitos en torno a los fondos europeos de recuperación: una mirada desde Hego Euskal Herria*. vientosur.info
- 13 Ugarte, Larraitz (2021). *Despropósito es dar por perdido lo que no se luchó*. naiz.eus
- 14 Otxandiano, P (2021). *Fondos europeos como marco de lucha estratégica táctica y praxis política*. erria.eus
- 15 Noval, M (2021). *Fondos europeos: Realidad y despropósitos*. elsaltodiario.com

Argitaraturik
2021EKO MAIATZEAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia





arteka